

Galestar ikasleak euskararen plangintza ikertzera

ARRASATE ^{PRESS}

1993ko martxoak 19

185. zenb.

Udal Plenoa
**Zerrajerako
langileen
aldeko mozioa**

Mendia
**Aretxabaletako
espedizioa
K-2ra**

**Etxeak
berritzeko planak**

Altamira (Zaldibar auzue)

Bertatik ixte Mundraue gutzie ikusten da, hasi Legarre aldetik eta San Andreseko Muxibarreraino.

Etxie antxinekue da, arku apuntau bat dauko sartuixeran eta Joxe Letonan esanetan, herriko zaharrene-tarikue ei da.

1909xen Martzelino Berezibar Altunak, bertako semiek, erosi eben etxi hau eta haziendie 11.000 pezetatan. Aurreko ugazaba Azkoittiko Zabalatar bat zan.

Gaur bertan bizi dienak Martzelino eta Nikolasa Altube Errastin (Ugazteikue) bi alaba die: Frantziska eta Bixenta.

Martzelinok eta Nikolasak izen zittuen beste 6 seme-alaba: Frantziska,



Joakina, Brigida, Albina, Bittori eta Fidel.

Frantziska eta Bixenta, bixek fabriketan lanien ibilitekuek die, bata Assam-en eta bestie Ulgorren. Frantziska fabrikan ibilite gero baserrixen geratu zan eta beti izan dau plaza tratureko jokaerie. Euren lurrek euzki begixek



dienez, goizeko jeneruendako oso egokixek izen die, tomatiendako batez be; iderra eta patatiendako be bai.

Gaur egun horren arrasato haundirik ez badau be, gaztaina txara ugari euen inguruetan. Bertatik ataraten zan materixala bai otzaraginen, bai mueblegintzarako

jasoten eben eta gehixen be Oñetiko eta Gernikako otzaraginek erueten euen.

182. zenbakian atal honetan bertan, Korriora baserriaz hitzegin genuen baina "Karriona" jarri genuen izenburuan. Bar-ka endredoak.

**'CARFRA' SUKALDE
ALTZARIAK
5 URTETAKO
GARANTIAZ**

**ELEKTROGAILUTAN
MARKA GUZTIAK**

**ARMAIRU
ENPOTRATUAK
ISPILU-ATE
KORRIGARRIEKIN**

**BARNE ETA
KANPOKO ATEAK**



CARFRA

Capilla modelo

Berango
ALTZARIAK

ERAKUSKETA

Legarre pabiloia z/g
Gipuzkoa Etorbidea
Tfnoa: 79 01 92
ARRASATE

DeLonghi

marka
italiarraren
banatzaile
ofiziala

Zatoz ezagutzera

ZUHAITZ

jatetxea!



Tfnoa: 71 41 21

GATZAGAN




JOSU
TXOKOLATEGIA
KAFETEGIA

Elkano, 25
ARRASATE
Tfnoa: 77 03 66



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

Gernika, 1993-3-16

Kaixo Tere!

so gustora mintzatu nintzairen pasa den larunbatean zure ikasleei, **Faulknerek** sortu zigan zenbait arazo argitzeko astirik sobera izan ez bagenuen ere.

Hala adieraz iezaiezu mesedez, aukera duzunean.

Ez dakit gogoratuko zaren aspaldi itzuli nituen **Silesen** poema haiekin, nola lerro batean zioen **hemen ez da ezertzo ere pasatzen, denbora ez bada**, orduko neure ezinegona diskribatzen asmatuko balu bezala edo. Berriro sentitu dut antzerako zerbait asteburuan, **Mirentxuri** nik lau urte nueneko argazkia **hau zure aitatxo da** esanez erakutsi diotenean. Zalantzatsu agertu da baina sinistu duela uste dut. Nik neu ere pentsatu dut **neu naiz**, eta ez **hori neu nintzen. Neu naiz, txikia nintzenean.**


Halere, badaukat iragandako denboraren kontzientzia. Tartean gauza asko pasatu da, baina, egia esatera. Kontua da, ez ote zuten arrazoa pitagoriko haiek, esferan musika entzuten ez badugu, etengabe hots egiten dutelako dela esatean. Kontua da, arropak soinean sentitzen ez ditugun bezalaxe, itsas ertzean bizi denak olatuen **oldarra** entzuten ez duen bezalaxe, ez ote dugun sarri iparra galtzen, objektuak bereizteko ahalmena baino geratzen ez zaigularik. Aurpegiak bereiztu, hitzak bereiztu... Tere, nola itzul liteke **Athanasius**

Kircher jesuitak Jainkoaz ari zela idatzitako **Tibi vero gratias agam clamore? Amore more ore re.** Bateren batek, forma eta edukia bereizteko lituzke. Badakizu, neuk ez ditut bata bestearengandik hain urruti ikusten beti. Esan al nizun? Bai, azkenaldian **Arestirekin** ari naizela. Bere lanetan gizona identifikatzen dudala uste dut eta pena handia ematen dit pertsonalki ezagutu ez izanak. (Ondorengo errespetagarriak gutxi dira).

Giuseppe Arroyo bigarren poemario benetan bikaina prestatzen ari da. Ez nuen gutxiago espero **Eskeintzak** irakurri ostean. Oso poeta ona da.

Beno Tere, eman eskuminak Fernandori, eta ea maizago esbribiduten daustazun.

Firmado, Jon Iñaki



LORE
93

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40


Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantazu Loidi. **Kazetariak:** Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon. **Publizitatea:** Kepa Oliden (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa:** Goyo Arana. **Erredakzio-kontseilua:** Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero, Iñaki Mendiguren. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udalak Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liher Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Danel Golkolea, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Mario Egües. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Legu-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



ARRASATE PRESS
paper ekologikoan egiten da.

Azaleko argazkia: Joseba



ZENBAKI
Aholkularitza

**Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak**

Basabe industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 88 75

Biteri Etorb. 15
ARRASATE
Tfnoa: 77 12 39

Memesa
79 42 22

ARAMAIO
okindegia

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46



**Alcoholarekin arazoak
daukazazu?**

**Agian,
"Alkoholiko
Anonimoek" lagundu
ahal dizute!!**

**Alkoholiko
Anonimoak**

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38

••••
**Kanpainarik
onena**

Gaurko gizartean indibidualismoa da jaun eta jabe. Neuk neurea konpondu eta besteak hor konpon!

Indibidualismo hori lan-tegietan inon baino gehiago bizi dugu.

Cerrajeran azkenengo urteetan lanpostuen amortizazio handiak egon dira, egoismoa jaun eta jabe izan delako: bertako langile gehienek, eurenari bakarrik begiratu diote: jubilatzen banaiz edo indemnizazio batekin konpontzen banaiz, bost ajola neuri nere lanpostua galtzen dela edo neure fabrika ixten dela ere.

Horrela, eta sindikatu batzuen laguntzaz, enpleguak milatik berreunera jeitsi dira eta uzten badiogu laster lanpostu bat ere ez da geratuko.

Euskadiko eta Arrasateko arazo nagusia langebezia dela Onartzen badugu, Cerrajerako suntsipen hau inolaz ere ezin dugu onartu.

Arrasaten milatik gora dira, lan eske ari diren gazteak, enplegu bulegoan, langabetuen %80a.

Gure lanpostuak mantentzea ez da izan behar orain lanean ari garenontzat bakarrik, gazte, langabetu horientzat ere bai. Horregatik ez dugu onartzen lanpostuen amortizazio gehiagorik.

Ezertarako ez dute balio Berrindustriazioak eta enplegu papaletan eskatzea,

gero ezer egiten ez bada, orain dauden lanpostuak mantentzearen alde. Orain dauden lanpostuak ez galtzea da kanpainarik onena.

JUAN RAMON GARAI

••••
Ozonoa

Jaun agurgarri hori: Gutun hau bidaltzen dizut munduko ozonozko geruzaren egoera azaltzeko.

Jakin dudanez, ozonozko geruzan zulo bat dago. Zulo hau haundiagotzen ari da, eta hau arrisksuegia da gizartearentzat.

Adibidez, minbizia sortzeko arriskua dago. Eta ni arduratzen nauena zera da: zulo horren tamainua ez handitzeko ez garelako ezer egiten ari. Honek denok arduratu behar gaituen arazoa izan beharko luke.

Horregatik, irtenbide batzuk hartu behar ditugula uste dut, adibidez: pintura plastikoak ez erabili; esmalteak ere ez, eta ezta kaltegarriak diren beste produktu batzuk ere.

Beste irtenbide bat, jendeak arazoa jakitea izan daiteke. Kanpaina bat egin, jende askok pentsatzen duelako horrek ezin gaituela inolaz ere arriskuan jarri.

Espero dut nik proposatzen ditudan irtenbideak onak izatea.

**INSTITUTUKO 2.C
TALDEKO BI IKASLE**

••••
**Anonimo
batentzako
erantzun
sinatua**

Arrasateko Udalean EAJ-PNVko Zinegotzi direnen argazkiz osatutako panfletoak erein eta pintadak egin dituztela eta, EAJ-PNVko Udal Batzarrak honakoa salatu nahi du:

1.- Horiek duten mehatxuzko estiloa.

2.- Ez dugu ulertzen nola egon daitekeen nokturnitatean eta anonimatoan babesturik diharduen taldekarik, Zinegotzi batzuk pleno baten azaldutako eskubide demokratikoaren aurrean hain era okerrean erantzunez, Arrasateko herri osoaren eta ez talde jakin baten zerbitzura dauden pertsona batzuk pikotan jarritz.

3.- Era honetako ekintzak arradikalki salatzen ditugu, horien bitartez gehingoak bezala pentsatzen duen (botuetan oinarritzen gara) herriaren ordezkarietara eraso egiten baitzaie.

4.- Gure babes osoa adierazten dugu gure zinegotziekiko, egiten ari diren gestioan eta hartutako erabakietan.

**ARRASATEKO
EAJ-PNVko BATZARRAK**

UGARTE
**Industri
hornidurak**

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96
Telefax: 793412

JOSTEKO

OIHALAK

Errekabarren, 20
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 80 90

**ARRASATE
PRESS**

HARPIDETZAK

77 05 65

Aitaren Eguna ospatzeko ohiturarik?



Mikel Lete
Jomako langilea
(29 urte)

Beste jai egun bat izango da, besterik gabe. Lehen, txikia nintzela, zerbait erosten genion eta modu bereziz ospatzen genuen, baina orain ez, gainera urte batzuk direla hil zitzaidan aita.



Amelia Alonso
Etxekoandrea
(48 urte)

Ez, normalean ez dugu ospatzen. Urte batzutan erregaluk ere egin izan ditugu, baina normalean ez.



Jon Pagaldai
Ulgorreko langilea
(35 urte)

Ez, beste jai egun bat izango da. Txikitan bai, gauza berezia egiten genuen egun horretan, baina aspaldian ez dugu ezer egin.



Nora Altuna
Kontabilitateko ikaslea
(18 urte)

Ez, niretzat beste jai egun bat izango da. Ez dut uste erregalurik egingo diodanik, berak ere ez dit ezer erregalaten eta.



Rosa Eizagirre
Etxekoandrea
(26 urte)

Bai, normalean modu berezian ospatzen dugu egun hori. Bazkari berezia lehen-dabizi eta gero erregalu batzuk emango dizkiogu.



Oskar Diaz
DYAkoa
(26 urte)

Beno, aita zoriondu eta beharbada bazkari berezia prestatuko du amak; denok batera pasatuko dugu egun hori.



Rebeka Urizarren
Langile eta ikaslea
(23 urte)

Normalean berari gustatzen zaion erregaliak emango dizkiogu eta egun horretan behintzat etxeko denok batera bazkalduko dugu. Amaren egunean ere gauza bera egiten dugu.




Pako Baena
Langabetua (27 urte)

Urte batzuk direla hil zitzaidan aita eta ordutik ez dugu ezer egiten. Lehen gogoratu egiten genuen baina inoiz ez dugu erregalurik egiteko ohiturarik eduki, ez aitaren egunean ezta amaren egunean ere.

• UNIVERSITY OF CAMBRIDGE • PRELIMINARY ENGLISH TEST

- Azterketa lekua: Eibar
- Azterketa eguna: 1993ko ekainak 19
- Matrikularen prezioa: 6.500 PTA
- Matrikula egunak: martxoaren 22tik 31ra
- Matrikula eta informazioa: Parlancen



Parlance
Ferrerias kalea, 11 Behea
Tfnoa: 77 06 83
ARRASATE

Monte taberna

Maalako errabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak	
Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11
Gurutze gorria	
Bergara	76 55 76
DYA	
Antzuola	76 62 91
Anbulatorioak	
Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	71 44 52
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16
Anbulantziak	
Gipuzkoako ambulanziaz	45 87 44
Udaltzaingoa	
Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22
Ertzaintza	
Arrasate	79 71 99
Suhiltzaileak	
Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ..	78 28 00
Matxurak	
Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78
Garraioak	
Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19
Hirugarren adinekoentzako zentruak	
Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57
Kontsumitzailearentzako informazioa	
Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55
Monterrongo liburutegia	
Monterron	77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 19	
Egunez: Morales. San Andres.	
Gauetz: Morales. San Andres.	
Larunbata 20	
Egunez: Azkoaga. Ferrerías.	
Gauetz: Azkoaga. Ferrerías.	
Igandea 21	
Egunez: Español. Iturriotz.	
Gauetz: Español. Iturriotz.	
Astelehena 22	
Egunez: Corcuera. Musakola.	
Gauetz: Corcuera. Musakola.	
Astearte 23	
Egunez: Irizar. Erguin.	
Gauetz: Irizar. Erguin.	
Asteazkena 24	
Egunez: Amezua. Santa Marina.	
Gauetz: Amezua. Santa Marina.	
Osteguna 25	
Egunez: Ruiz. Morales.	
Gauetz: Ruiz. Morales.	

18 OSTEGUNA

ZINEA

“¿Porqué le llaman amor cuando quieren decir sexo?” (7,9.30)

KONTZERTUA

“Rhythm n’blues” eta “All Nigh- ters” taldeekin kontzertua. Gaueko 9etan. Arrasateko Gaztetxean.

LIBURUEN ERAKUSKETA- REN AZKEN EGUNA

Haur txikientzako liburu- erakusketaren azken eguna. Monterronen.

19 OSTIRALA

ZINEA

“¿Porqué le llaman amor cuando quieren decir sexo?” (5,7.30,10)

BERTSO AFARI GAZTEA

16 urtetik 30 urtera bitarteko gazteentzat bertso afaria. Bertsolariak: Igor Elortza, Unai Iturriaga eta Iratxe Ibarra. Prezioa: 1.000. Alkartu elkarteak. Gaueko 8.30etan.

PANTICOSARA IRTEERA

Panticosara irteera. Irteera: goizeko 8etan Garibaitik. Itzulera: 21ean. Besaide mendizale elkarteak antola- tuta.

FORMIGALERA IRTEERA

Formigalera irteera. Irteera: goizeko 5etan Garibaitik. Itzulera: 21ean. Besaide mendizale elkarteak antola- tuta.

BERTSO AFARI GAZTEA

Bihar 16 urtetik 30 urte bitarteko gazteei zuzendutako bertso afaria izango da Alkartu elkarteak AEDko Gazte Mobidak antolatuta. Igor Elortza, Unai Iturriaga eta Iratxe Ibarra izango dira parte hartuko duten bertsolariak.

Joateko interesa duzuen guztiok, Hire, Ekaitz eta AEDn eros ditzake- zue txartela 1.000 PTAn.



20 LARUNBATA

ZINEA

“Algunos hombres buenos” (5,7.30,10)

IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA

1934an jaiotako kintoen bazka- rirako izena emateko azken eguna. Bar Bengoa edo Pinturas Zangitun. Prezioa: 2.000 PTA. Kintoen eguna: martxoak 27an.

YOGA IKASTAROA

Hasierako masai ikastaroa. Yoga elkarteak. Goizean zehar.

SANTAMAINAKO LUDOTEKA

Santamainako Ludoteka zabalik. Goizeko 10.30etatik 1.30etara. Santamainako Gazte Lokalean. OHOkoen- tzat bereziki.



KALITATEA AUKERATU: GOMENDIOAK ZURE ESKU

“Kalitatea aukeratu” izenburua daraman kuadernoa atera dute Eusko Jaurlaritzako Kontsumo eta Turismo sailak. Bertan, telefono zerbitzua, erosketak egiterakoan, aseguruak, auto tailerrak, banku zerbitzua, zerbitzu elektrikoa, bidai agentziak eta gas zerbitzuari buruzko hainbat gomendio eskaintzen ditu. Kuaderno hauek Kontsumitzaileen edozein Bulegotan har ditzakezue.

21 IGANDEA

ZINEA

"Algunos hombres buenos"
(5,7.30,10)

**ALAI ZINEMA:
"ALGUNOS HOMBRES
BUENOS"**

Armadako abogatu batek epaiketa militar batean justizia lortzeko egingo dituen ahalegin guztiak kontatzen dira pelikula honetan. Egia lortzeko, bere militar kargua bera ere arriskuan jarriko du Daniel Kaffek (Tom Cruise). Epaietan bere alde egongo den bat, Joane Galloway (Demi Moore) izango da, hain zuzen, hileta akusaziopean dauden bi gizonak defendatzen lagunduko diona.

22 ASTELEHENA

ZINEA

"Algunos hombres buenos"
(7,9.30)

INGURURUGIROARI BURUZKO HITZALDIA

"Gure ibaien egoera ekologikoa. Deba ibaia" izeneko hitzaldia eta Deba Ibaia bideoa. Hizlaria: Xabier Iribar. Arratsaldeko 7etan Monterronen.

MARGO ERAKUSKETA

Elorrioko Herriko Tabernan Mikel Arroiabe atxabaltarraren pintura erakusketa zabalik martxo osoan. Kuartro hauetan paisaia ugari ikus daitezke: Zumaia, Zarrautz, Azkoitia, Aretxabaleta, Orio, Pasaia eta abar.


MINTEGIA: NEGOZIAKETAK INGELESEZ

Ahizke-CIMEk ingelesez negoziaketak egiteko estrategiak praktikatzeko mintegia antolatu du. Erdi-Goi mailakoentzat dago zuzenduta eta datorren apirilaren 5ean hasi eta 7ra bitartean

izango dira klaseak, arratsaldeko 2.30etatik 5.30etara. Prezioa 5.900 PTAKoa izango da eta interesatuok Ahizke-Cim ikastetxean eman dezakezue izena.

23 ASTEARTEA

ZINEA

Ikusleen eguna. (300 PTA)
"Algunos hombres buenos"
(7,9.30)

INGURUGIROARI BURUZKO HITZALDIA

"Kontsumoa gure herrian eta ingurugiroarekiko eragina" hitzaldia. Hizlaria: Mikel Reguero eta Antton Fernandez. Arratsaldeko 7etan. Monterronen.

HITZALDIA: POBREZIAREN FEMENIZAZIOA

"Pobreziaren feminizazioa" izeneko hitzaldia. Hizlaria: Ana Do Santos. Arratsaldeko 7etan. Udaletxean. Komiteak eta Emakumeen Asanbladak antolatuta.

HITZALDIA: IKUSPEGIAK ZABALTZEKO PROIEKTUÅ BAT

Unibertsitateko espezializazioari buruzko hitzaldia. Hizlaria: Juan Celaya. Arratsaldeko 6.45etan. Biteri Egoitzan.

ODOL EMATEAK

Odol emateak. Arrasateko Anbulategian. Arratsaldeko 4etatik 8etara.

24 ASTEAZKENA
INGURUGIROARI BURUZKO HITZALDIA


"Udala eta ingurugiroa" hitzaldia. Hizlariak: Maite Uriarte, Juan Antonio Urdangarin. Arratsaldeko 7etan. Monterronen.

ODOL EMATEAK

Odol emateak. Arrasateko Anbulategian. Arratsaldeko 4.30etatik 8etara.

KRISTAU BALORE ETIKOAK

Datorren ostegunean "Kristau balore etikoak sozialean" izeneko hitzaldia egongo da arratsaldeko 7etan San Juan elizako Saloi Parrokialean. Frantzisko Jabier Kerejazu izango da hizlaria.


INGURUGIROARI BURUZKO IHARDUNALDIAK

Datorren aste osoan ingurugiroari buruzko problematikari buruzko ihardunaldiak burutuko dira Arrasaten. Irtenbideak bilatzeko, herritar guztiei arazoak zeintzuk diren azaltzea izan daiteke aukera bat eta hori dela eta, astean zehar hainbat hitzaldi egongo dira, egunero arratsaldeko 7etan Monterronen ingurugiroarekin zerikusia duten gaietaz: ibaiei buruz astelehenean, kontsumoari buruz asteartean, Udala eta ingurugiroari buruz asteazkenean, hondakinei buruz ostegunean eta arrantza eta ehizari buruzko mahaingurua ostiralean. Mahainguru honetan "Asociación de No Cazadores", Triunfo aldizkariko abokatu bat eta Gorozti Zientzi Elkarteño ordezkariak egongo dira. Horretaz gain, aste osoan erakusketa ere izango da zabalik.

“Argi dago oraingo derbiak ez direla gureak bezalakoak. Beste garai batzuk ere baziren. Orduko futbolariok zentsibilizatuago geuden inguratzen gintuen errealitate sozialarekin. Sentsibilitate berezi horren adierazgarri izan zen 1976ko abenduan Atotxara ikurriñaz elkarturik irteteko hartu genuen erabakia. Momentu garrantzitsua zen, eta zerbait egin behar genuela ikusi genuen. (...) Oraingo partiduek ere badituzte ezaugarri berezi batzuk, derbi izaten jarraitzen dute, baina zerbait galdu da. (...) Athletic-Erreala partiduak eta Erreala-Athletic bueltakoak, sana eta deportiboa izateari utzi behar ez dion baten adiezgarri izan behar dute berriro.”

Iñaxio Kortabarria

egin

“(Arrasateko Zerrajerak eta gainerako enpresek bizi duten egoeraren aurrean). Elkartasunerako deia egin nahi nioke Arrasateko herriari. Izan ere, guztiz ilogikoa iruditu arren, batzuetan ahaztu egiten zaigu honelako uneetan elkartasun beharra. Langilegoari eta Arrasateko herri osoari egiten diot dei elkartasunerako. Zalan-tzarik gabe gure artean dauden desberdintasunak hau bezalako erronka handi baten aurrean gainditzen ahalegindu behar dugu eta”.

Xabier Zubizarretak 93-3-15eko Plenuan



“Lehenengo errekorra 1985eko uztalean egin nuen 200 plateretatik 195 hautsiz. Baina hurrengo astean Tarragonan jokatu zen Espainiako Kopan marka hori hobetzea lortu nuen. Hor batean bakarrik egin nuen huts, hau da, 200etik 199 asmatu nituen. (...) Plater tiroketa jende askok uste duen baino askoz ere gogorragoa da, beste kirolik ez dagoelako hainbeste denbora kontzentratu egotea eskatzen duenik. (...) Oso goi mailara iritsita ere, kirol honetatik ez dago bizitzerik”.

Rafa Apxek 93-3-14

Egunkaria

Euskal Bankoaz, ze iritzi?


Banku honen sorrera Elkarte Autonomoan sektore publikoaren egitura ekonomikoak osatzeko ematen diren pausuen artean sartu behar da. Arazoa da argitzea ea Entitate berriak finantziar-errekurtso berriak gestioatzeko aukera erraztuko duen ala ez: kutxa-koefizientea betetzeko-Elkarte Autonomoko Finantz-entitateek Espainiako Bankuan dituzten saldoak zuzenki gestioatzeko ahalmena izango duen ala ez.

Kontuan izanik saldo hauek 160.000 milioitara iristen direla, jabetu gaitzake horren garrantziaz. Gaur egungo koefizientea, %3a, merkatuko moneta-masa arautzeko tresna baino, likidezia izan eta bezeroen beharrak asetzeko baliabide bat besterik ez da. Europan moneta politikan gero eta indar haundiagoa hartuko du Europako Banku Zentralaren sorrerak, eta honek arlo horretan nagusitasuna izango duela.


Helburuak koefizientearen estaldura bezala dauden gordailuen gestio hurbila eta ondoren lortuko den finantziar-aurrezkia dira, batez ere uste bada E. B. P. rentzat gordailuak kosturik gabeko fondoak direla.

Honek, gastu publikoaren finantziario merkeago baten bitartez, euskal ekonomiaren funtzionamendua dinamizatzea posible egingo du. Horregatik, hain zuzen, positiboki baloratu behar dugu. Koefizienteen gestioa bere kompetentzietatik kanpo geratzen bada, euskal finantz-sistemari zerbait berri eta erabilgarria eskaintzeko posibilitatea oso murriztuta geratuko litzateke. Banku berri honen eremua Arlo Publikoan oinarrituko balitz soilik gaur egun, eta datozen urteetan, euskal finantziar sistema pribatua nekez hobetu dezakeen entitate berri bat besterik ez litzateke izango.

Euskal Banku Publikoaren proiektua, egin daitekeen proiektua da, baina bere emaitzak finantziar errekurtso berriak gestioatzeko izango duen ahalmenaren arabera izango dira. Horrela, zerbait berri eta erabilgarria eskaintzeko gai ez bada, erronka zorrotza eta nekeza dauka bere aurrean.



Juan Jose Arrieta
Euskadiko Kutxako zuzendaria



LORATEGI
Iturriotz, 7
ARRASATE
Tefnoa: 790467



- Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
- Otzaratzarrak
- Giltzak gordetzeko armairuak
- Erremintak eramateko gurdiak
- Erremintak gordetzeko armairuak
- Lan egiteko aulkiak

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76



FAGOR

TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

Langileek mobilizazio ugari

Ostegun arratsaldean UCEM Cerrajerako langileek burututako kontzentrazioa izan zen asteburuan zehar luzatu den langileen mobilizazioen zerrendako lehena, 50en bat lagun bildu ziren. Egun berean, Roneoko langileek martxa bat burutu zuten Kataidetik herri erdiraino. Ostiralean, berriz, prentsaurrekoa eskaintzeaz aparte, Roneoko langileek Donostian kontzentrazioa burutu zuten UCEM korporazioaren egoitza aurrean eta larunbatean gauza bera egin zuten Portaloian. Horretaz gain, Deba Garaiko LAB, ELA, CCOO eta ESKk egutegi kanpaina iragarri eta krisiari aurre egiteko neurrien berri emanez, prentsaurrekoa eskaini zuten.

Bestalde aipagarria da astelehenean UCEM-eko langileek aurkeztutako mozioaren onarpena, Lan-Delegazioak Uribealgoko langileen aldeko erabakia hartu izana eta asteartean Transformados Metalicos, Roneo, Uribealgo eta Aleko langileek egin zuten manifestaldia.

Kalteak hamabost ibilgailutan

Ispiluak puskatuta eta parabisak okertuta zituztela agertu ziren Biteri Aparkalekuko hamabost ibilgailu ostegun goizean. Udaltzainek kalteen parte bete eta puskatutako ispiluak



Zuhaitz Eguna Garagartzan

Garagartzako Udal Mintegian burututako Zuhaitz Egune-ko ekintzetan 60 neska-mutikok hartu zuten parte joan den larunbatean. Jakina denez, Zuhaitz Eguna hasieran martxoaren 6an burututzekoa zen, baina elurtearen ondorioz atzeratu egin behar izan zen. Umeek, astigarrak, lizar arruntak, arlkaziak... eta beste hainbat zuhaitz-mota landatzeko aukera izan zuten. Ohi denez, lana egin eta gero legezkoa da hamarretako on bat, eta hori betetzeko ume guztientzat prest zeuden ogitartekoak, baita edari freskagarriak ere. Hori gutxi balitz, jai-giroa nagusitu zedin, trikitilarien lanari esker dantza egiteko aukera ere izan zen.

jasotzeaz gain, kalteen egilea edo egileei buruzko inolako pistarik ez zutela adierazi zuten, baina ganberroren bat izan zitekeela pentsatzen zutela.

EAJ kalean agertutako panfletoen aurka

Ostegun goizean EAJko zinegotziak iraunduz kalean agertu ziren panfletoak direla eta, Arrasateko EAJko Batzarrak idatzi bat kaleratu du. Idatzian kalera botatutako panfletoei nabari zaien mehatxu itxura salatzeaz gain, eskubide demokratikoak bete eta herri osoaren zerbitzura

dauden zinegotzien aurka nokturnitate eta anonimitoa erabiltzea ulertezina dela adierazten da. Era berean, horrelako ekintzak gogortasunez salatzeaz gain, zinegotziei babes osoa eskaintzen zaie.

Triatlloi talde baten sorrera

Triatlloi taldearen sorrera iragarri zen joan den astean, arropa eta materialari dagokionez Ciclos Lopez-ek lagunduta eta Arrasate Kirol Elkartearen babesaz. Sortu berri den taldearen lehen helburua Arrasaten ezagutzera ematea da, jende

gehiago hurbil dadin momentuz taldea osatzen duten hamar lagunengana. Jose Mari Barrena eta Jose Galán dira taldea osatzen dutenen artean esperientzia duten biak, batez ere Galán, Euskadiko Txapelduna baita beteteranoen kategorian.

Kultur eta Euskararen Astea

Erguin eta San Andres eskoletako ikasleentzat ezohizkoa izan zen joan den astea, klaseekin batera, baten Kultur Astea eta bestean Euskararen Astea burutu ziren eta.

Zinema, kirol-saioak, ikasleek egindako jaialdiak, antzerkiak, jolasak... prestatu dira ikasleentzat kasu bietan. Ikasleek ezezik, irakasleek eta umeen gurasoek ere hartu dute parte antolatutako ekintzetan, hauentzat gehienbat hitzaldiak eta erakusketak antolatu badira ere. Labur esanda, giro ona eta arrakastadun makina bat ekintza.

JAIOTZAK

- Xabier Biteri Barrena. Martxoaren 6an.

EZKONTZAK

- Jose Juan Mendia Barrondo & Elixabete Azkoaga Bastida. Martxoaren 13an. Zibilez.

HILDAKOAK

- Inazia Arregi Olaskoaga. Martxoaren 11n. 86 urte.
- Esperanza Montañes Miana, 13an. 74 urte.
- Fausto Larreina Saenz de Urturi, 15ean. 87 urte.

**TXOKO
TABERNA**

Cure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak

Otalora Lizentziatua z/g Tfnoa: 79 20 10

ESLU

ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE



KARMELE MARTINEZ *

Errepresiorik ez

Azken aldean ikusi denaren arabera, argi dago euskal preso eta errefuxiatuen aurkako errepresioak, gorako bidean, ez duela mugarik. Gainera, azken erasoen biktimetarikoz batzuk arrasatearren artean ondo ezagunak izan dira, bertako edo oso ondoko seme izateagatik, jakina.

Hor dago esate batera, Jose Manuel Pagoaga "Peixoto"ren atxiloketaren inguruan sortutako egoera desproporzionatua, legearen aurkakoa era berean. Agintari frantziarrek ez zuten "Peixoto"ren aurkako ezer, eta ezin izan zuten ezertaz salatu. Hala eta guztiz ere, "Euskaldunen aurkako borrokan edozer gauza onargarria da" artikuluerrepresioaren bidez Fresnes-eko presondegiko ospitalean ingresatu zuten. Atxiloketa hori egiterakoan ez zuten kontuan izan "Peixoto"ren errefuxiatu guztiz legalaren egoera, eta

gutxiago bere osasunarena, bizitza normala egiteko aldamenean lagun bat izatera behartzen duena. Euskal Errefuxiatuen kolektiboaren aurkako kriminalizazio politikaren hatzamarra agerian azken finean. Ah! egun gutxitara eta bere aurkako proba barik askatu behar izan zuten, konfinatzeko izan bazen ere.

Iparraldea-Errefuxiatuak-Kriminalizazioa egoeratik Estatu-Espainiara-Euskal presoak-Errepresioa triangelora. Erakusgarri Aitor Azkargorta "Kanto" eta Jesus Mari Zabarteri azkenaldean gertatutakoak.

.....

"Aurkako proba barik askatu behar izan zuten Peixoto, konfinatzeko izan bazen ere"

Orain denbora gutxirarte Aitor Azkargorta "Kanto", trastorno psikikoak medio, Karabantxelgo ospital psikiatrikoan egon da. Arazo horiek zirela eta, Espetxetako Zaintza Epaileak gartzelatik kanpoko sendagile batek ikusteko baimena eman zuen; baimena eman bezain laster, "Instituciones Penitenciarias" delakoak Sevillara trasladatzeko agindua eman zuen.

Jesus Mari Zabarte ez dago Aitor baino hobeto. Iaz, gartzelako bizi-baldintzak hobetzeko borrokan, 100 egun baino gehiago pasa zituen ezer jan barik. Orduan lortutako promesak usteldu egin dira eta urteberria iritsi zenetik, urtarrilaren 7tik, erabateko isolamenduan daukate eta inork ez du ikusi. Nola dagoen? Auskalo! eta oraindik, gutxienez, beste 4 hilabete pasa beharko ditu isolamenduan.

Horrela daude gauzak eta ez dirudi errepresioaren gorakada gera daitekeenik: saiatzen diren abokatuak kriminalizatu egiten dituzte; gartzeletako araudiarik ez da betetzen eta protestatuz gero, zigorrak; dispertsioak, EAJren ustez praktikoa eta legekoa, euskal presoek erabilpen arbitrarioa eta gizagabea eragiten du... eta aurpegia garbitzeko jeltza-leek gartzelak bisitatzen dituzte, gero egoera errealar buruzko adierazpenik ez egiteko bada ere.

(*) AMNISTIAREN ALDEKO GESTORETAKO PARTAIDEA

USTEAK USTE

ELKARRIZKETA FALTA

Hogei urte pasa dira jadanik, Milaneko Duomoko Piazzan geundela, bertako gizon batzuen arteko eztabaida politikoa ikusi eta entzuteko aukera izan genuenetik.

Jatorra eta berria, benetan, han ikusitako dena. Gehiegi berotu gabe, eta kritika zorrotza erabiliz, ordubete edo egongo ziren han elkartutakoak. Burura datozkigu duela 20 urte entzundako hitzak: *porca miseria, diestra faszista, siniestra inutile*, e.a.

"Hau da guri falta zaiguna Euskal Herrian" — esaten genuen hura ikusita. Ezin imajinatu halakorik Portaloian edo Herriko Enparantzan.

Baina, pentsatzen ez genuena zera zen, alegia, 20 urte beranduago ere, 1993an hain zuzen, ezinezkoa egingo zitzaigula. Ezinezkoa, elkarren artean hitzegiteko gaitasunik ez dugulako. Hainbat kuadrila edota familietan ezin atera gai madarikatu hori, gai politikoa, ezin eztabaidatu hainbat egoera.

Noiz izango gara ditugun ideia ezberdinak atera eta eztabaidatzeko gai? Noiz besteari entzuteko?

Elkarri hitzegitea. Hori da benetako pakea lortzeko eman beharko genukeen lehen urratsa. Eta maila guztietan, etxekoan artean hasi eta Herria zuzentzen dutenekin bukatu. Nor eta noiz animatuko ote?

Gure esku dago.

JOSE RAMON ELORTZA

Lore lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99

Plus Ultra
taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57

ARRASATE
PRESS
HARPIDETZAK



77 05 65



Zerrajerako langileak makina bat mobilizazio egiten ari dira.

Udala Zerrajerako langileen alde

Udaletxeko Pleno Aretoa jendez gainezka zegoela, alderdi politiko guztiek oneritzia eman zioten UCEM-eko Transformatu Metalikoetako Langileen Asanbladak, euren lanpostuen defentsan aurkeztutako mozioari. Mozioa Langileen Asanbladak aurkeztu zuen, baina 2350 arrasatear, Ibai-Arte eta Arrasateko Ostalari Elkartearen laguntza eta sinadura ere bazuen.

Plenoa arratsaldeko 7etan hasi zen eta berehala bukatu zen. Udaletxean ordezkaritza duten alderdiek ez baitzuten inolako eragozpenik izan mozioari baiezkoa emateko orduan. Onartutako mozioaren arabera, Udalak Union Cerrajeran geratzen diren 194 lanpostuei eustearen aldeko lana egiteko konpromezua hartu zuen. Zentzu horretan, eta espekulazio negoziarik egin ez dezan, Udalak ez du Union Cerrajera kokatzen den lurzoruaen berkalifikaziorik egingo.

Xabier Zubizarreta Alkateak, aipatu zuen

bazekiela mozioaren onarpena eta Udalak UCEMeko lanpostuen defentsan egin zezakeena gehienbat sinbolikoa izan zitekeela, baina lanposturik gal ez zedin Udalaren aldetik ahalegin guztiak egingo zirela eta garai txarretan horrelako elkartasun jarriarak beharrezko jotzen dituela.

Langileen ordezkari batek, Cerrajeran azken urteetan gertatu diren lanpostuen galerak salatzeaz gain, berrindustrializazioa eta enpleguaz hitzegitea, gero ezer egiten ez bada alperrikoa zela adierazi zuen eta kanpainarik onena lanpostuak ez galtzea dela; ondorioz, gaur egungo arazo nagusia langabezia izanda, Cerrajerako suntsipena onartezina dela adierazi zuen.

1981. urtetik gaur egunera Union Cerrajeran 655 lanpostu galdu dira eta egungo gestoreak etorri zirenetik, alegia 1985. urtetik, langile kopurua 619tik 194ra murriztu da langileen esanetan.

Lehen Instantziako epaitegirik?

Xabier Zubizarreta

Alkatea Madrilen izan zen joan den astean, Arrasateko Bake-Epaitegia Lehen Instantziako Epaitegi bihurtzeko asmo eta ahalegin zaharrean aurrerapausu berri bat eman nahirik. Alkateak Botere Judizialeko arduradun batekin hitzegin zuen, eta orain arte Epaitegiaren gaia ilun samar ikusi izan duela, baina azken bidaiaren ondoren, baikor izateko arrazoiak daudela adierazi zuen.

Telefonikaren kabinak

Telefonikak Udalari hiru kabina berri jartzeko posibilitateari buruzko informazioa eskatu dio, bata Araba Etorbidean, bestea Zerkaosteta kalean eta hirugarrena Obenerreka kalean. Baimena emango liokeela adierazio dio Udalak Telefonikari, baina edozein kasutan proiektua aurkezterakoan Obenerrekakoa beste toki batean kokatu beharko dela, orain gaizki baitago. Era berean, Gipuzkoa Etorbideko kabinaren aberia dela eta, Udalak lurpeko kanalizazioan obrak egiteko baimena eman dio Telefonikari.

Kabina berriak seguruenik jarri egingo dituztenez, Udalak aurrez modeloak ikustea eskatuko du.

MENDI taberna

Mendi da zure etxea

Maalako Errabala, 4 Tfnoa: 79 20 54 ARRASATE

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiralez
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



Azken 15 urteetako Arrasateko lanaren bilakaera aztertu nahi du Udalak.

Udalak egoera ekonomikoari aurre egiteko bideak urratu nahi

Enpresa Zentru baten eredu proiektua egiteko eskaintza prest dauka Saiolan enpresak. Enpresa Zentruaren proiektua, etorkizunean garatu beharrekoa da, eta horretarako Udala dirua aurrezten ari da. Jakina denez, lan-egoera txarraren aurrean zerbait egin eta lanpostuak sortu ahal izateko horrelako proiektu baten bidez, iazko aurrekontuetan 50 milioi PTako dirutza aurrezte erabaki zen; normalena, aurrean ere horretarako diru-kopururen bat erreserbatzea litzateke. Saiolan proiektua egiteko prest dagoenez, bileretan hasi beharko dute Udal ordezkariekin batera.

Aipatutakoa ez da egoera txarrari aurre egiteko Udalaren asmo bakarra; izan ere, LKSk dagoeneko amaitu du Udallerriaren garapen industrialerako analisi eta perspektiba azterlanaren borradorea, hau da, azterketa nola egin proposatzen duena. Ekimena- oinarria abenduan burututako pleno batean aurkitzen da, orduan EAJk aurkeztutako mozio bat eztabaidatu ondoren, Ino Galparsorok herriko azken hamabost urte- tango lanaren bilakaeraren azterketa egitea proposatu zuen. Orduan LKSri ikerketa nola egin beharko litzatekeen galdetu zitzaion eta aste honetan bertan erantzun du.

Jubilatu etxeek berriz aurkeztu behar likidazioa

Jubilatu etheen izenean Sanitate, Kontsumo eta Gizarte-Ekintzetako Batzordeak aurkeztutako likidazioa ez zuen onartu Udalak. Udalaren ustez, jubilatuen etxeek likidazioari buruz aurkeztutako informazioa ez da behar bestekoa, ez baita etxe bakoitzeko sarrera eta irteeren berri ere ematen eta ezta orokorrean ere.

Motorzaleen konzentrazioa

San Isidroetarako oraindik denbora falta da, baina oraingoz gauza asko antolatuta dira, horien artean aipagarrienetarikoa, nobedadea izateagatik, motorren konzentrazioa. Ekimen hau Arrasate Motocluba eta Musakolako Auzo-Alkate- tzaren artean antolatu dute eta maiatzaren 15 eta 16an burutuko da. Konzentrazioa Euskadi mailakoa izango da eta partehartzaileek Eroski aurrean kanping dendak jartzeko aukera izango dute, horretarako baimena eskatu dute behintzat Musakolakoek.

zortzi

**GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA**

Otatora z/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE

**ARRASATE
HOTELA**

Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

EPELDE

argazki denda

Iturriotz, 24
ARRASATE
TFNOA: 79 19 71

**ZENTRO
PSIKOPEDAGOGIKOA**

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala
(Psikomotrizitatea eta
hizkun berreziera)

Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola
arazoak, enuresia
(Ohe bustitzea),
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tfnoa: 79 48 77
ARRASATE

**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

**ARRASATE
PRESS**

HARPIDETZAK

77 05 65



Azken bi auzolandegien proiektuak Ingurugiro Eskolan landu dira

Jaurlaritzak ezetza aurtengo auzolandegi proiektuari

Inoiz baino proposamen gehiago izan dituela eta, Jaurlaritzak ez du aurrean Udalako auzolandegi proiekturik onartu. Gazteria Batzordean jaso duten azalpenaren arabera, Jaurlaritzak Gipuzkoan zazpi auzolandegi proiektu onartu ditu eta lehenetsuna eman zaie lehenengo aldiz antolatu direnei.

Orain arte Arrasaten hiru auzolandegi proiektu jorratu dira, 89an, 91ean eta 92an. Lehen aldiz egin zenean Parrokiako bobeda garbitzeko aprobetxatu zen; bigarrenan, berriaz, Udalaitzeko maketa handi bat egin eta ingurugiroaren ikuspuntik zenbait ekin-

tza burutu ziren Udalako Ingurugiro Eskolan; azkenik, iaz, Ingurugiro Eskolan aprobetxa zezaten material pedagogikoa egin zen eta era, berean, Udala auzoko goiko parteko iturria konpondu eta inguruak garbitu ziren. Batz bestea, bi txandetan banatuta, auzolandegi proiektu bakoitzean berrogeiren bat pertsonak hartu du parte.

Jaurlaritzak aurtengo auzolandegi proiektua ez onartu izanak ez du esan nahi burutuko ez denik, baina horretarako Udalak beste bideren bat erabilita antolatu beharko du.

300.000 PTA elur-garbiketetan

Elurtean egindako lanen ondorioz Udalak 303.000 PTA ordaindu zituen, bideen garbiketatan baka- rrik. Aurrera begira, orain duen tresneriari, esate batera Land-Roverren bati, palaren bat jartzea edo planteiatzen ari da Udala, tresneria berezia erostea gehiegizko izango litzateke eta.

Argi-arazoak Azoka Plazan

Gezurra dirudi, baina egia da. Azokako saltzai- leek, batez ere harakinek, Azokako argia aldatzeko eskatu diote Udalari. Saltzai-leek diotenez, gaur egungo argi-motak, itxura txarra ematen dio haragiari.

Dirulaguntza Heriotza-rentzat

Heriotza taldeak LP-a grabatu eta kaleratzeko asmoa dauka eta horretarako laguntza eskatu zuen Udalean. Musika taldeak LP-aren grabaketarako 2 milioitako aurrekontua du eta Udalak 226.000 PTA emango dizkio.



Parques
y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Larazaintzako mantenimendua ora har.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.




Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)




Azkenean agertu da Garagartzako jaietan Parisera zozketatu zen bidaiako irabazlea. Jon Gomezek eta Ainhoak, bere andre-gaiak, lau egun pasatuko dituzte Parisen, "Ez dakigu noiz joango garen, baina Paris ezagutzeko gogo izugarria dugu" azaldu digu Jonek.


Frantziako Landetako Parendis-En-Born herriko 20 ikasleren bisita izango dugu datorren astean, eta astebete pasatuko dute Arrasate eta inguruko herriak bisitatzen, Institutuarekin egingo den trukearen bidez. Arrasateko Institutuko OHOk 1. eta 2. mailako ikasleek datorren 28an joango dira euren herrira eta kultura, ohiturak eta bizimodua ezagutzeko aukera aprobetxatuko dute.



Iñaki Galparsorok 25 urte bete ditu Garagartza eta Gesalibarko apaiz moduan. 33 urterekin etorri zen Garagartzara, Guadalajaran beste



Irakurtzeko ohitura bultzatu nahian, umeei zuzenduriko hainbat ekintza antolatu dira aste honetan. Besteak beste, haurren liburuen erakusketa zabalik dago Monterronen eta, erdi jolasean baina liburu artean, Arrasateko ikastetxe desberdinetako 30 neska-mitiko talde pasa dira bertatik.



Nagore Ipiña mondragoetarrak, Diputazioak antolatu duen zuhaitz eguneko marrazki lehiaketako irabazlea da. Hor duzue Mertzedarietako laugarren mailan ikasten duen neskatilaren marrazkia. Zorionak!

BLUSAK OSAGARRIAK POLTSAK

XAHO

ANGELA UNZUETA

Novecento eskusiban Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie

Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ

PEUGEOT - TALBOT

Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETAPINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

IZEN PROPIOAK




Famili eta Gizarte Heziketarako zentruko 38 emakume Lezon izan ziren martxoaren 8a, emakumearen eguna ospatzeko.

Bertan, Gipuzkoako beste zentruetako

emakumeekin bildu eta hainbat ekintza burutu zituzten elkarrekin. Argazkian ikusten denez, San Telmo museoa ere bisitatu zuten.

Mikel Lagunilla, 17 urteko arrasatearrak Berrigarak antolatutako amodiozko gutunen lehiaketako bigarren saria irabazi du "Amaiur" izeneko lanarekin. "Egia esan asko kostatzen zait idaztea, baina hasten naizenean nahiko ondo egiten dudala uste dut" esan digu, eta baita ondo egin ere. Zorionak!



● **Oier Araolaza**, 21 urteko eibartarra izan da Berrigarak antolatutako amodiozko gutunen lehiaketako irabazlea, "Amets egin dut bart" lanarekin. **Mikel Lagunilla**, 17 urteko arrasatearrak bigarren saria irabazi du, "Amaiur" lanarekin eta **Jon Sanchez**, 18 urteko bergararrak, Bergarako lehen klasi-fikatuaren saria.

● Merzedarietako OHoko 4. mailako **Josu Garcia**, **Itziar Nuñez**, **Iker Laspiur** eta 5. mailako **Ainhoa Barrrena**, Kili-kili aldizkariak euskara bultzatzeko antolatutako lehiaketa desberdinetako irabazleak izan dira.

● Hezibideko mediatekako arduadunak, **Gurendane Etxebarria**, **Arantza Mongelos**, **Mañole Ezenarro**, **Mari Karmen Guri-di**, **Amaia Aspiazu**, **Amaia Ayastui**, **Begoña Arrieta**, **Pilar Askasibar**, **Rafa Agirre**, **Aintzane Gardoki** eta **Ana Ugalde** Bordeleko mediatekak ezagutzera joan dira aste honetan, esperientzien trukaketa eta mediateka proiektuaren barruan egiten ari diren lanarekin jarraituz.



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta
Iarruzko artikulak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

**ARRASATE
PRESS**

HARPIDETZAK



77 05 65

VE ECUADOR

Bidaiak

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06



**SAMEGO
GARBIKETAK**

Uriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

**Guzti hau irudi berri baten
hasiera baino ez da,
profesionaltasun garbiko
bidean.**




**Zuk badakizu Euskadiko Kutxak gogor diharduela euskal gizarte eta enpresa-
gintzaren alde. Oso Kutxa geure-geurea dela.**

**Euskal Herriko Kutxa. Baina, ezagutzen al duzu gure profesionaltasun -eta
aholkamendu- maila.**

**Gazteentzat, esate baterako, onura gehiago. Familientzat, interes handiagoak
kontu korrontean eta ohizko libretan. Beste kutxetan baino gehiago.**

**Eta guzti hau irudi berri baten hasiera baino ez da, profesionaltasun gar-
biko bidean.**

Futbito Txapelketa ZALDIBARREN



Aukeragabekoen zerrenda osatzear dagoenean

Baloia aidean, eta ez baloia bakarririk Txapelketa bera ere nahiko aidean dago eta. Bi partidu besterik ez dira jokatu bigarren fase honetan, eta dagoeneko nabaritzen da zeintzuk izango diren zereginik ez duten taldeak. Beharbada apustuak egiteko goizegi izango da eta hobe izango litzateke beste ihardunaldi pare bat jokatu arte

itxarotea. Hala eta guztiz ere, eta hanka sartzeko arriskuaz, horra hor zer egirik ez dutenen zerrenda oraingoz nola osatuko litzatekeen: Pepelus, Los Dimy, Arrasate Kristaldegia, Noski, Publicoop. Montrey taberna, Jodo Floro, Gure Leku, Bizkorak, Laso Arregi, Leintz Garagardotegia eta Los Heredia. Ah! asteburu honetan jai.

NUEVO
taberna

Bañez Doktoarea, 15
Tfnoa: 79 99 88
ARRASATE



DEBA
GARAIA

MONDRAGON BERGARA ELGOIBAR

Arrasaten, Iturrioz, 23 azpia
Tfnoa: 77 13 02

Eros dezaket pisu bat hirierdian, lasaia, eguzkitsua, ikusbideekin, 3 logelakin eta trastelekua eta guztiz hornitua, baldin badauzkat 1,5 miloi pezeta eta 45.000 pzta / hilero?


SEGURASKI BAIETZ !

a taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald	Alde	Aurk.	Guzt.
ARRASATE KIROLAK	2	2	0	0	11	1	4
ZULOAK	2	2	0	0	9	1	4
ARGI IBILI	2	2	0	0	13	3	4
NUEVO TABERNA	2	1	0	1	4	7	2
TXOKO TABERNA	2	1	0	1	1	5	2
PEPELUS	2	0	0	2	2	8	0
LOS DIMY	2	0	0	2	2	9	0
ARRASATE KRIST.	2	0	0	2	2	10	0
GUZTIRA	16	8	0	8	44	44	16

b taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald	Alde	Aurk.	Guzt.
ZIZTI-ZAZTA	2	2	0	0	10	2	4
SUM. UGARTE	2	2	0	0	13	3	4
DIEGO ANTONIO	2	2	0	0	13	6	4
KAIXO LENIZ	2	1	0	1	10	9	2
LORAT. POTROAK	2	1	0	1	7	9	2
NOSKI	2	0	0	2	6	13	0
PUBLICOOP	2	0	0	2	4	11	0
MONTERREY TAB.	2	0	0	2	3	13	0
GUZTIRA	16	8	0	8	66	66	16

c taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald	Alde	Aurk.	Guzt.
ADELAIDA HAIZEA	2	2	0	0	6	2	4
MIKELOS	2	2	0	0	6	2	4
NOTXINGAN FLO.	2	2	0	0	8	3	4
ZULUS	2	1	0	1	7	5	2
DANOK LAGUN	2	1	0	1	5	5	2
JODO FLORO	2	0	0	2	2	5	0
GURE LEKU	2	0	0	2	3	8	0
BIZKORRAK	2	0	0	2	1	8	0
GUZTIRA	16	8	0	8	38	38	16

d taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald	Alde	Aurk.	Guzt.
TRIKITI	2	2	0	0	8	2	4
URMAY B.K.	2	1	1	0	7	4	3
BETRAYER	2	1	0	1	6	7	2
KOKKAS	2	1	0	1	6	7	2
MOTZ	2	1	0	1	3	4	2
LASO ARREGI	2	0	1	1	5	6	1
LEINTZ GARAGAR.	2	0	1	1	6	8	1
LOS HEREDIA	2	0	1	1	4	7	1
GUZTIRA	16	6	4	6	45	45	16



RAUL AGIRRE (Trikiti taldekoa)

Raul Agirrek urte piloa daramatza Zaldibarko Txapelketan jokatzen, 12 edo 13 urterekin hasi baitzen. "Alvaro Arregik kendu zuen arte. Lehen GNU taldean jokatzen nuen eta orain Trikitin".

Bere taldea sailkapeneko lehen postuan dago eta faboritotzat dauka berak. "Argi Ibili, Adelaída eta Zizti-Zaztarekin azkenean hortxe izango gara. Bidali

izan ez balute, Fosforos ere hor egon zitekeen, baina hura aurrez pentsatutako zerbait izan zen, zeren gero mobida gogorragoak izan dira eta ez da ezer gertatu".

Kritiko dabil Raul, "baina ez ezer apurtzeko, kritika konstruktiboa egin behar da". Hasieran antolakuntzan zegoen, baina orain utzita dauka, zenbait gauzarekin ez baitago ados. "Lana

beti jende berak egiten du eta gainera erabakiak aurrez hartzen dira: bilera egin, botoak eman eta gero nahi dutena egin. Arbitraiak hobetu daitezke eta horretarako jende berria aurkitu behar dute".

Raulek duela urte batzuk baino hobeto ikusten du bere burua eta baita besteena ere "jendea irabaztera doa, profesionaltasun gehiago nabaritzen da".

ITURRIOTZ
taberna
Girorik jatorrena!
 Tfnoa: 79 16 04

Zarugalde kalean...

BRANKA
TABERNA

IRATI
TABERNA
 Ferrerías kalea ARRASATE
 Tfnoa: 79 71 80


BELARRIRA

◆ **Zozketarik ez**

Asteburuan ihardunaldirik jokatuko ez denez, astelehenean ez zen afarien zozketarik egin. Izan ere, partidurik ez jartzeko arrazoia, kanpora joateko asmoa zutenek lasaitasunez aldegiteko eragozpenik ez izatea izan zen. Bada, afariak ez zozketatzeko, lege bera. Kanpora joateko dagoena ezin bada, afari bat dela eta, gogoz kontra gelditzera behartu. Seguru horrelakoetan janariak ere, kalte egiten duela eta jakina denez, afari hauek jendeak ondo pasatzeko antolatu dira, eta ez sufritzeko.

◆ **Bi taldek aurrera**

Oraingoz ez da erabaki ondorengo faseak nola jokatuko diren, partidu bakarrera, bira edo liga antzera. Gauza seguru bakarra dago: talde bakoitzetik bi talde sailkatuko dira eta momentuz, gauzak pil-pilean.



Konpetitibotasunaz hitz egiten ari dira Zaldibarko Futbito Txapelketaren inguruan mugitzen diren gehienak, aurten jendea garaipenen bila sekula baino amorratuago dabilela. Edozein modutan, irabazi nahiak ez du esan nahi edozer gauza egin behar denik garaipena lortzeko eta noizean behingo kirol-keinuak, argazkikoa lekuko, horren eredu.

EMAITZAK

A TALDEA

Pepelus 0 Txoko taberna 1

B TALDEA

Noski 4 Lorategi Potroak 6
Sum. Ugarte 6 Monterrey Taberna 1

C TALDEA

Mikelos 2 Jodo Floro 0

D TALDEA

Trikiti 2 Motz 0

Emaizta estuak elurraren ondorioz atzeratutako ihardunaldiak ekarri zituenak. B taldean, Suministros Industriales Ugartek jipoi ederra eman zion Monterrey-ri, baina gainerantzean, berdintasuna nagusi. Badirudi hemendik aurrera, taldeen arteko oreka hori izango dela txapelketaren ezaugarri nagusia.

Trikiti S. L.

SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA

Otalora, 25 ARRASATE Tfnoa: 77 13 20 Faxa: 79 88 56

ASTEBURU HONETAN

Larunbata 27

Zaldibar

- 08.45 Nuevo taberna / Los Dimy
- 10.00 Diego Antonio / Publicoop
- 11.00 Mikelos / Bizkorrak
- 12.00 Urmay Burger King / Motz
- 13.00 Adelaida Haizea / Zulus
- 14.00 Danok Lagun / Gure Leku
- 15.00 Laso Arregi / Koxkas
- 16.00 Leintz Garagardotegia / Betrayer
- 17.00 Zizti-Zazta / Noski
- 18.00 Notxingan Florest / Jodo Floro
- 19.00 Kaixo Leniz / Monterrey Taberna


Igandea 28

Zaldibar

- 08.45 Trikiti / Los Heredia
- 10.00 Zuloak / Pepelus
- 11.00 Sum. Ind. Ugarte / Lorategi Potroak
- 12.00 Arrasate Kirolak / Arrasate Kristaldegia
- 13.00 Argi Ibilii / Txoko Taberna

Asteburu honetan ez da partidurik jokatuko; hala ere, hor gainean dituzue hurrengo asteburuan jokatuko diren partiduen ordutegi osoa. Guztiak dira interesgarriak eta bigarren faseko hirugarren ihardunaldia dela kontuan hartzen bada, orduan gehiago, bai aurreran eta baita atzean ere, gauzak asko argi daitezkeelako.

NON DAGO BALOIA?



Non ote dago baloia? Ez dakizula! berdin da, jokatu edozein zenbakitara, badakitela pentsatzen dutenek ere, ez dute beti asmatzen eta. Badakizu, **Non dago baloia?** lehiaketeko sari ederra eramateko, bide bakarra lehiaketan parte hartzea da.

17. astea

NON DAGO BALOIA?

- Erantzuna
- Izena
- Tfnoa



Trikipubliko

Kanpatorpea, 2

Tfnoa: 79 31 33 Faxa: 79 88 56 ARRASATE

- Publizitate kanpainak •
- Diseinu grafikoa •
- Artikulu publizitarioa •
- Zuzeneko publizitatea •
- Bideo produkzioa •

● *Suzuko Ainhoa Tamura*

Bihotz euskalduneko japoniarra

Elkarrizketa japoniar batekin egitea bitxia bada, elkarrizketa honek badu beste ezaugarri bitxi bat: euskaraz hitzegin dugu berarekin. Euskara perfektua du. 59 urte, hizkuntzalaria, kristautasunerako konbertsioa egin zuenean Jose Mari Satrustegik jarri zion Ainhoa izena. Euskaraz eta euskaldunetz maite-mindurik dago eta euskara eta euskaldunon bizikera erakutsi nahi dizkie Japoniarrei.

— Noiztik eta nola Japoniar euskaldun?

— Galdera zaila, ordubete behar da horri erantzuteko. Hasieran hizkuntzalaria naitzelako eta hango hizkuntza batekin antz handia duenez, hizkuntza bezala interesatu egin zitzaidan, hizkuntza bezala oso interesgarria da eta. Horrela etorri nintzen, apur bat ezagutu, baina ikasteko asmorik gabe. Gero euskaldun asko ezagutu nituen, jatorrak, alaiak, onak, eta gehiago hitzegin nahi nuen eta harremanak sakondu; EGA ere eman zidaten, kostata, eta irakasteko gogoia egin zaidan. Orain euskara irakasten


hasiko naiz Japonian.

— Hizkuntza bezala interesgarri izatek beste zerbait sentitzera iristeko, zer dauka euskarak?

— Hizkuntza bezala interesgarria da, eta ni bezalako pertsona batentzat, euskaldunen hizkuntza eta euskaldunak, maitagarriak egin dira. Niretzat eredu zarete, zuek bezain ona izan nahi dut eta. Horregatik irakatsi nahi diet euskara hango gazteei. Euskara ikasten han hasi eta gero gehiago ikasi nahi dutenean hona etorriko dira, eta zuen pentsamendua eta bizimodua ikasiko dituzte, japoniar herria ez baita nire ustez ona orain, eta horrela hobea izango da, maitasuna sortuko da. Euskaldunak maite ditudalakogomentatzen dut euskara

— Hemendik Japonia ez da zuk esan bezala ikusten...

— Han ere badira onak, baina herri osoaren sentimendua edo, zer egin behar den, hemengo pentsamoldea gustatzen zait niri, maitasuna hitz batez. Handia izatea inportantea da han, eta gehiago ikasteko, unibertitate onean sartu, enpresa handi baten sartzea eta antzeko gauzak agintzen dizkiete



amek umeei, ez, esate baterako, triste dagoen lagunei laguntzea. Hemen hori inportanteagoa da, esperientzia hori izan dut hemen, harrigarria da zein ondo portatzen diren denak hemen. Horixe da zuen bizimodua eta atzerritarrok ere oso ondo hartzen gaituzue. Laguntasun, adiskidantza eta maitasun gabe ez du ezerk balio.

— Euskara irakasteko metodoa ikastera etorri zara, ezta?

— Bai, hemen klaseak oso ondo ematen dituzue, Japonen ezin da hori ikasi eta nik klaseak emateko, bideoaren erabilera ezagutu nahi dut, eta horretara etorri naiz Arrasateko Euskaltegira. Ni ez naiz euskaldun zaharra eta euskaraz hitzegiterakoan japonierazko euskara hitzeginen dut;

benetako euskara, hemengo bizimodua, ohiturak, gorputza mugitzeko era, nik ezin diet irakatsi. Hitzegitean gorputza, aurpegia, begiak mugitzeko duzuen era ez da gurea bezalakoa, eta hori jaso nahi dut.

— Bideoa aipatu duzunez, Nafarroa Oinezeko bideoan ere ikusi zaitugu...

— Baaaaii! Ni nintzen! Oso ondo pasa nuen. Hasieran ez nuen nahi, ikaskide nafar batek eskatu zidan, mesedez eta mesedez, Japoniarrek bezala erregutuz.

— Euskal Herria leku bezala?

— Polliiitaaa. Gustatzen zait, Bilbo ere bai, nire adiskideak han bizi dira eta. Euskal Herria udazkenean da polita batez ere, eta Japonian ere badaude antzeko herri politikak. Han askotan gogoratzen dut Euskal Herria paisaia batzuk ikusiz. Azkenean ezagutu dut Euskal Herria elurrez ere; baneukan gogoia, eta asko gustatu zait.

● **“Euskaldunak maite ditudalako erakutsi nahi diet euskara nire herriko gazteei”**

Etxe zaharrei itxura berria emateko planak

Beñardo Kortabarria

Deba Garaiko herri gehienetan, aurrera eramaten ari dira etxebizitza zaharrak birgaitzeko planak. Kasu batzuetan alde zahar osoak birgaitzeko planak planteiatu dira, beste batzuetan gune konkretu batzuetako etxebizitzaren etxaurreak, eta azkenik edozein tokitan eta etxejabeen bidez egin daitezkeen lanak. Arrasaten hiru mota hauetako planteiamenduak bultzatu dira.

Etxebizitzan berritze lanak egin eta horretarako dauden laguntzak aprobetxatu nahi dituenak, ez du oso bide luzea egin behar: Suradesan (Mankomunitatean) edo Udaletxean zer plan dagoen ikusi, plan horren arabera norberak zer egin dezakeen aztertu, eta beharrezko tramiteak bete. Aipatutako bidea eginez gero, norberaren diru-sarreraren arabera, familiaren egoera kontuan hartuta, etxearen baldintzak ikusita... Jaurlaritzak eskaintzen dituen kredituak jaso ahal izango dira, kasurik okerrenean %13ko interesdun kredituak; baina %6ko interesaz

edo hutsaren truke emandakoak ere badaude.

IAZ 500 MILIOI

Horrelako planak aspaldi samarrekoak dira, 1986. urtetik honakoak gutxienez, orduan sortu baitzen Suradesa. Aretxabaleta eta Oñati izan

ziren birgaitze lanei ekin zieten lehen herriak eta auskalo zazpi urte hauetan bailadan zenbat etxebizitza birgaitu den! Iaz, esate batera, 150 etxebizitzetara burutu ziren lanak, guztira 500 milioi PTA inguru. Aipatutako etxe kopurua handia da, baina hamar

urte baino gehiago duen edozein etxebizitza birgaitze kontuetan sar daitekeela kontuan hartzen bada, ez dirudi hainbesterakoa. "Jendeak zioen Luis Laskurain, Suradesako arduradunak - badaki laguntza onak daudela, ezagutzen ditu, baina ez du sinesten aurrera eraman daitezkeenik. Aurkeztu beharreko dokumentazioa handia da, burokrazia lan handia eta luzea, edozein aspertzeko modukoa eta jendeak atzera egiten du askotan. Etxebizitzak berritzeko dauden dirulaguntzetan aparte, etxeak erostekoan ere ematen dira, kreditu merkeak eskaintzen dira".

Arrasaten, une hauetan, hiru plan ari dira bultzatzen: Alde Zaharraren birgaitze plana, Alde Zaharreko etxebizitzetako etxaurreen konponketa eta San Andreseko birgaitze plana. Horretaz gain, beste edozein tokitan egon daitezkeen edozein etxebizitza berritzeko aukera ere bada, baina horiek norberak bultzatu beharrekoak dira.

ALDE ZAHARREKO PLANA

Alde Zaharreko birgaitze planari dagokionez, ezin da esan arrakasta handikoa izan denik, Suradesa martxan jarri zenetik, hemen burutu diren eraberritzeak ez dira gehiegi



Etxe zahar askoren konponketa beharra bistakoa da.

izan eta. Alde horretatik, Luis Laskurainek plana nahiko geldirik zegoela adierazten zuen, tramitatutako espedienteak gutxi zirela. Egia esan, bistan dago Arrasateko Alde Zaharreko etxe asko berrikuntzen beharrean daudela, kontraste handidun alde zaharra baita. "Nahiko gaizki ikusten da alde zaharra, eraikuntza berri askorekin, zahar zaharrak direnak ere badaude eta. Horretaz aparte, kontuan hartu behar da alde zaharrean bizi diren askok etxea alokatuta dutela eta, normala denez, ez direla obretan sartuko; beste etxe asko, berriz, promotoreen esku daude eta horiek ez dira horrelako planetan sartzen, nahiago dute eraikuntza bota eta etxebizitza berriak egitea, horrela diru gehiago ateratzen baita".

ETXAURREEN BERRITZEA

Alde zaharraren birgaitzea ez da plan horretara mugatzen, Diputazioaren bidez Arrasatek 7 milioi jasoko baititu Erdiko Kaleko etxaurreak berritzeko. Plan horren arabera, berritze orokorraren kostua 35 milioitakoa da, baina, aurrez aipatutako arrazoiengatik, etxebizitza guztiek ez dute berritzeko planik onartu. Teorian, estetika kontuak medio, politena kale osoko etxaurreak berritzea izango litzateke, baina nahi ez duena behartzea, legala izanda ere, ez da bidezko jotzen, diru asko gastatzera behartu behar baita. Proiektuan 14 eraikuntza zeuden, baina egin hamarrek egingo dute. Eta lehen laguntzei buruz aipatutakoa baieztatuz datu bat: Laguntza eskatuz gero, batzaz beste, erakundeen artean obraren %35a ordaintzen dute eta gainontzekoa norberak ordaindu behar du; hala ere, laguntzak bi eraikuntzatak bizilagunek bakarrik eskatu dituzte. Dena dela, badirudi Arrasateko kontua dela hori,



Erdiko Kaleko etxaurreak berritzeko planean ez dira eraikuntza guztiak berrituko.

A lde zaharrean bizi diren askok etxea alokatuta dute, eta normala denez, ez dute obretan sartzerik nahi"

beste herri batzuetan horrelako planek arrakasta handia izan dute eta.

Antzuolan Herriko Plazako etxaurreak konpondu behar dira, Aretxabaletan Herriko Plaza eta Durana kalekoak, Bergaran Barrenkaleko etxaurreak, Elgetako enparantza biak, Eskoriatzan Arana kalea eta Oñatin, azkenik, Foruen enparantza; Gatzaga, ez da birgaitze lanetan sartu aurretik.

SAN ANDRESEN ERABERRITZEA

Herriko Alde Zaharra eta etxaurreak alde batera, San Andreseko plana ere martxan dago. Orain arte plan honek ez du erantzun handirik izan, baina dagoeneko eraikuntza

oso batean berritze lanak egiteko espediente jarri da martxan. "Ikuspuntu guztietatik, San Andreseko etxebizitzak berritzea beharrezkoa iruditzen zait. Igogailuen beharra nabarmen-nabarmena da, San Andreseko biztanlegoaren zati handia jubilatuta baitago; bestetik, hezetasuna dago etxeetan eta hori konpontzeko kanpokaldeko hormak konpontzea beste erremediorik ez dago; eta estetikoki ez dago esan beharrik obra orokor baten beharra dagoela. Jendea zergatik ez den horretan sartu? bada, dirua ez da norberaren etxea barrutik konpontzeko, guztiona den zerbait konpontzeko baizik eta hori zailagoa izaten da".

Aretxabaletako espedizioa K-2ra

- 8611 metrotako garaiera, Karakorum. Pakistan.

- 1902. urtean egin zen lehen saiakera, 6.600 metro-taraino iritsiko zen.


- 1939. urtean Wiessner amerikarra eta Ptasng Dawa Lama sherpa, oxigeno barik 8.380 metrotara iritsi ziren, hegoekialdetik abiatuta. Jais-terakoan espedizioko kide bat eta hiru sherpa hil ziren.

- 1954. urteko uztailaren 31an, hegoekialdeko bidetik, Lino Lacedelli eta Achile Compagnoni italiarrek lehen igoera gauzatzea lortu zuten.

- 1981. urteko abuztuaren 7an, Eiho Ohtani eta Nazir Sabir japoniarrak mendebaldeko bidetik gailurreraino iristea lortu zuten.

- 1982. urtean Naoe Sakashita, Hiroshi Yoshino eta Yukihiko Yanagisawa japoniarrek, Txinatik abiatuta, iparraldetik igotzea lortu zuten. Abuztuaren 14a zen eta jaitsieran Yukihiko Yanagisawa hil zen. Hurrengo egunean, espedizio bereko lau kidek ere gailurra zapaltzea lortu zuten.

- 1986. urtea: 13 pertsona hil ziren. Wanda Rutkiewicz emakume poloniarra gailurrera iritsi zen, bera izan zen lehen emakumea K-2an. Hego eta hego-mendebaldeko bideak ireki zituzten.



K-2a, atxabaltarren aurtengo ametsa

- Urte berean, uztailaren 23an, Mari Abrego eta Josema Casimiro nafarrek igo zuten. Eurak dira orain arte gailurra lortu duten euskaldun bakarrak.

- 1989. urtean, hegoekialdetik, Juanjo San Sebastian eta Martin Zabaleta gailurra lortzen saiatu ziren, baina alperrik. Expedizio berean, Alberto Posada bizkaitarrak parapentez jauzia egin zuen 7.400 metrotako alturatik.

- 1990. urtean, japoniarrek Ipar aldea eta Ipar-mendebaldeko bideak elkartu zituzten; abuztuaren 9an, Hiro-taka Imamura eta Hideki Nazukak gailurrera iristea lortu zuten.

- 1991. urtean Pierre Beghin eta Christophe Profit frantziarrek Ipar-mendebala eta Iparraldeko hormetatik bide berria ireki zuten, abuztuaren 15ean goraino igotzea lortu zuten.

Oxigeno gabeko bideetan gora

K-2a, munduko bigarren mendirik altuena izateaz gain, ederrenetarikoa da. Karakorum mendikatean kokatzen da, Pakistan eta Txinako mugan. Alberto eta Felix Inurrategi, Joseba Urkia, Jon Ander Loidi eta Fernando Uribesalgo atxabaltarrek eta Jabier Zuñiga prepartatzaileak osatutako taldeak, gailurrera ipar aldeko ertzetik igo nahi du, teknikoki K-2ko bide zailenetik. 1982an japoniarrek markatutako bidetik ia goraino, baina goikaldean inork gaindutu gabeko ertz batetik pasatzen saiatuko dira. Espedizioko bost kideek oxigeno barik igotzeko asmoa dute.

Mendiak berez dituen zailtasunekin topo egin aurretik, aurrekontuak erakusten dituen egin beharko zaie aurre. Bidaia egin, zama bidali, materiala, janaria, eta argazki-materiala erosi eta botikina osatzen 6.800.000 PTA gastatuko dira. Txinan eta Pakistanen, berriz, royaletia, garraioa, interpretea, gameluak, agentzia... eta beste hainbat gauza zenbatuta 11.000.000 PTA ateratzen dira. Guztira, beraz, 17.800.000 PTA.

ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK
77 05 65

ZUBIZARRETA TAILERRAK
Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tfnoa: 79 15 65

Elektroinjekzio Zerbitzua 
ARRASATE KONPONKETAK
Zaldisper kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

PENALTIAK

● Arrasateko pilotariek ez dakite asteburu honetan jokatu duten edo ez. Deba Arroa Pilota Txapelketaren barruan Aretxabaletaren aurka jokatu behar dute, baina ez dakite noiz. Izan ere, atxabaltarrak Euskal Ligari jokatzeko ari dira eta dirudienez, ez zaie batera komeni asteburu honetan jokatzetik.

● Rugby taldeko emakumezkoek joan den asteburuan jokatu zuten aurtengo bigarren partida eta baliteke laster batean hirugarrena jokatzeko aukera izatea, seguruenez berriro Gazteizko Gaztedi taldearen aurka eta baita Zaragozako talde baten aurka ere.




Eskubaloi partidu ikusgarria Iturripeko kiroldegian

Teka eta Mepamsa taldeen arteko neurketa kategorian handikoa gertatu zen, eta Iturripen bildutako ikusleek izugarritzko ikuskizunaz gozatzeko aukera izan zuten. Azkenean, markagailuan nafarren aldeko abantaila 27 eta 22, beharbada Teka-koak baino gogo gehiago jarri zutelako. Kiroltasuna nagusi izan bazen ere, talde biek ahalegin ugari egin zuten eta Mepamsak ondo erakutsi zuen dagoen tokian baino gorago egoteko taldea dela, nahiz eta Teka, ez zen izan edozein partidutan aurkitu zezakeena.

Teka pasiatzera etorri zen?

Nire ustez ez. Kontuan hartu behar da lau gizonen faltan etorri zirela eta berotze-arietak egiterakoan beste bat lesionatu zitzaizela.



TXIPI HERRERO,
Arrasateko
Eskubaloi Taldeko
partaidea

EMAITZAK

Eskubaloia

Seniorrak: Pasaitarra 20 - Arrasate Kirolak 19
Juniorrak: Arrasate Kirolak 18 - Akondia 18
Jubenilak: Pulpo 34 - Arrasate Kirolak 8
Kadeteak: Arrasate Kirolak 17 - Urola 6
Ibon Abasolo memoria: Mepamsa 27 - Teka 22

Hurrengo partiduak

Seniorrak: Arrasate Kirolak - CAF, ostiralean 12etan Iturripen.
Kadeteak: CAF - Arrasate Kirolak, ostiralean Beasainen. Arrasate Kirolak - Hernani, igandean 10.30etan Iturripen.
Jubenilak: Arrasate Kirolak - Arrate, igandean 12etan Iturripen.

Futbola

Hirugarren maila: Mondra 1 - Urola 1
Preferentea: San Andres 0 - Aurrera 6
Ohorezko maila: Ordizia 2 - Mondra 2
Jubenilak, lehen maila: Lakua 0 - San Andres 4
Jubenilak, bigarren maila: Kilimon 1 - Arrasate 4

Kadeteak: lehen maila: Arrasate 5 - Mutriku 2
Kadeteak: bigarren maila: Soraluze 1 - Arrasate 3
Haurrak: Arrasate 4 - Billabona 0
Bergara 4 - Arrasate 4

Hurrengo partiduak

Hirugarren maila: Mondra - Tolosa, Axabalpen ostiralean arratsaldeko 5etan.
Emakumezkoak: Mondra - Bortziriki, Axabalpen ostiralean 11.15etan.
Jubenilak, bigarren maila: Arrasate - Zestoa, Axabalpen 1etan.
Kadeteak, bigarren maila: Arrasate - Urki, Axabalpen 9.30etan.

Rugbya

Seniorrak: Arrasate 32 - Eibar 15.
Emakumezkoak: Gaztedi 58 - Arrasate 0.

Hurrengo partiduak

Seniorrak: Kakarraldo - Arrasate, larunbatean Pientzian.

Saskibaloia

Seniorrak: gizezkoak, Caja Vital 72 - Arrasate 66
Emakumezkoak, Arrasate 61 - CBN 42
Juniorrak: Arrasate 61 - Zarautz 78
Jubenilak: gizezkoak, Ikastola Urtek 84 - Arrasate A 103
Arrasate B 65 - BKL CAF 68
emakumezkoak, Arrasate 50 - Eskoriatza 38
Kadeteak: Arrasate A 61 - Janak Donosti 74

Hurrengo partiduak

Seniorrak: gizezkoak, Arrasate - Atletico San Sebastian, larunbatean Musakolan 6etan.
Emakumezkoak, Jarrilerros - Arrasate, Portugaleten larunbatean.
Juniorrak: Bosteko - Arrasate, Donostian larunbatean.
Jubenilak: Itzurin Kirolak - Arrasate B, Zumaian larunbatean.
Kadeteak: gizezkoak, Arrasate C - Loiola A, San Vitorren igandean 12etan. Mundaiz - Arrasate B, Donostian igandean. Arrasate C - Loider, Musakolan larunbatean 12etan.
Emakumezkoak, Arrasate B - Arrasate C, San Vitorren larunbatean 4etan.

ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK
77 05 65

"EDERTU" ileapaindegia
San Andres auzoa
Tfnoa: 79 04 28

beinke

HAURTOKO
Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE

Arrasateko Ikast

• *Bagara, ez gara, goazen Ikastetxe Publikoetara* •

• **Arrasateko Batxilergo Institutua** •

Ikastetxe publikoa
1993-94 ikasturtea

IKASKETA ESKAINTZA

Batxilergoko 3 kurtso eta UBI.

Ohizko irakasgaietz gain, aukerakoak honakoak dira:

- 1.BBB: Frantsesa-Ingelesa
- 2.BBB: Erlijioa-Etika / L.T.P.: Elikadura, diseinua, informatika, frantsesa
- 3.BBB: Aurrekoak eta ondorengoak:

- A. Zientzia arloa
- B. Letra arloa
- C. Zientzia-letra arloa

U.B.I.: A.Zientzia-teknologia arloa

- B. Arlo bio-sanitarioa
- C. Giza arloa
- D. Linguistika arloa

EZAUGARRI OROKORRAK

- Inguruko batxilergo-eskola bakarra
- Euskal eta erdal adarrak maila guztietan
- Irakasgai bakoitzeko irakasle lizentziadunak
- Ordutegi trinkoa: goizeko 8.30etatik arratsaldeko 3ak arte.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: zinema, antzerkia, txangoak, argazkilaritza, kirolak: saskibaloia, igeriketa, ski-astea...

EKIPAMENDUA


Informatika gela, fisika, kimika, natur zientzia eta argazkilaritzako laborategiak, gimnasioa, bideo gelak, liburutegia.

AURREINSKRIPZIO EPEA

Maiatzean.

Tfnoa: 79 44 47-37

MATRIKULA DOHAINIK!



Musakolako Institutua

stetxe Publikoak

- *Haurrak haur, bereizkeriarik gabe,
herri eskolan dudarik gabe* •

- **Arrasateko Herri Eskolak** •

MATRIKULA-EPEA IREKI DA!

ESKAINTZEN DUGUNA:

IRAKASTEKO EREDUAK

- Inmertsioa
- D Eredua
- B Eredua

IRAKASLEGO ESPEZIALIZATUA

Informatika, Ingelesa, Hezkuntza berezia,
Soinketa eta Musika.

PEDAGOGIKOKI

Talde multiprofesionala eta
P.A.T. aholkuak.

ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK


Guraso Elkarten laguntzarekin.
Multikirola, zinemaldiak, esku-lanak,
argazkigintza eta bestelako ikastaroak.
Tailerrak (Kontsumoa, ingurugiroa,
drogomenpekotasuna, sexualitatea, aisia,
goxoki tailerra...)

BESTE ZENBAIT ZERBITZU

Jangela eta garraioa
Laborategia eta Liburutegia

Informazioa osatu nahi baduzu,
dei egin ezazu:

- Erguin: 79 77 74
- S.Andres: 79 00 44
- Musakola: 79 04 49



San Andres



Erguin



Musakola

Eskola Publikoa: badator, badator... mamua

Onartu berri den Euskal Eskola Publikoaren legearen mugak ez dute justifikatzen sarri entzun duguna: legea Buesarena denez gero, definitzen duen eskola eredu espainola dela eta, beraz, bere baitan ez dela posible euskalduntzea.

Gipuzkoako eskola publikoaren praktikari begiratzen badiogu "ebidentzia" hori lurreratu egingo zaigu eta onartu egin beharko dugu, gutxienez, gaia askoz konplexuagoa dela... Izan ere:

- A ereduaren desagertzearen dago lurralde honetan; 31 haur besterik ez dira matrikulatu ikasturte honetan.

- B + D ereduarentzako haur kopuruak %80a suposatzen du (18.811 haur).

- Haur erdaldunen gehiengoa eskola publikoetara doanez gero, sare hau da haur gehien euskalduntzen duena.

Hau ikusirik, nork mantendu dezake Eskola Publikoaren espainolotasuna? Egia da, beste muturrera jota, euskararen egoera diferentea dela oso Araban, ikastolak barne.

Ikus daitekeenez, lege berberarekin emaitza eta errealitate oso desberdinak daude irakaskuntzan. Irakaskuntza gizarteko borroka linguistikoaren islada da. Gi-



puzkoan, adibidez, ez da baxterre arraroa PSOEkoen seme-alabek euskarazko ereduaren egotea. Araban, berriz, A ereduaren defendatzaile amorratuak dira UArekin batera. Zergatik?. Duda gabe, euskara era partidistan erabiltzen delako; hauteskunde lehiaketaren barne dinamikak

dakarren alderdikeriak eta sektarismoak, hizkuntza baten alde lerroterako bestea ukatzen eta konbatitzera eramaten gaituelako. Hemen dago benetazko problema, nahiz eta, sarri, ondorioak irakaskuntzan sufritu.

Eta hau, Eskola Publikoaren kalterako, batez ere,

euskalduntzearen erronka kokatzen den sarearentzat hain zuzen ere.


Ildo honetatik, imajina ezazue ze bultzada izango litzatekeen euskararentzat ikastola guztiak sare publikora pasa eta orain arte bisaretan banandurik egon diren indar euskalzaleak batuko balira.

Baina erronka honi ihes egiten diotenek ez dezatela Eskola Publikoaren espainolotasunaren mamua astindu; ez dezatela esan euskararen izenean egiten dutenik. Arren.

ARRASATEKO STEE-EILAS

.....

“Imajina ezazue ze bultzada izango litzatekeen euskararentzat ikastola guztiak sare publikora pasa eta orain arte bisaretan banandurik egon diren indar euskalzaleak batuko balira”



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE



ste honetarako aukeratu dugun erretratu zaharra benetan da zaharra. 1902ko apirilaren 1ean atera zuten, eta inor gutxik eman ahal izan digu bertan agertzen direnen eta inguruko historiaren argibiderik.

Erretratua **Klemente sastrearenean** ateratakoa ei da, eta sastrea bera ere

ageri da, atzekaldean zutik. Inguruko neskak bere aprendizak dira, garai hartan neska asko ibiltzen zen eta josten ikasten, bai jostun baten etxera joanda, eta baita etxez etxe josiz ere. Klementek Iturriotz kalean zeukan bere tailerra, orain Aranzabalena denda dagoen etxean, lehenengo pisuan. Ezagutu ahal izan

ditugunen artean, jostkina bera, **Dominga Arrieta**, Domingo Arrietaren arreba birkia, Tomas **Balanzategiren** arreba eta **Pilar Otadui** daude. Azken horrek Cafe Universal famatuan egiten izan zuen lan. Kafe hori orain Kajoi taberna dagoen etxean zegoen, eta Franzisko Otadui zen jabea, Pilarren koinatua.



Mondeo

MUGARRI



Barruko indardun edertasuna

Injinerutza aurreratua eta aitzindaririk gabeko maila teknikoa.

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎

Etxebizitzak

- Arrasaten edo inguruetan eskailararik gabeko etxe baten bizileku edo logela behar dut. Dei egin 77 05 65 tfnora.
- Garajia salgahi, itxitxa. Atxabaltan, Errekabarrenen. Tfnoa: 79 58 98.
- Etxea salgai Aretxabaletan, berrituta eta jantzita. 71 47 09 tfnora dei egin.
- Donostian gela bat edo pisua behar da. Tfnoa: 79 47 09.
- Bi oheko gela eskaintzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- Pisua edo logela behar da Arrasaten. Premia dut. Tfnoa: 88 90 59.

Lana

- Alemanez mintzatu nahi duzu? Metodo erreza eta atsegina. Ama-hizkuntza ikasi zenuen bezala, gramatika gabe, ordua aukeratuz. Tfnoa: 79 41 23. Altzaga jauna.
- OHOk klase partikularrak emango nituzke. Tfnoa: 79 69 41. Arantxa.
- Esperientziadun neska euskalduna behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Dei egin 79 21 63 tfnora. Utzi mezua erantzungai-luan.
- Frantzeseko klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 79 45 51. Eva.

Denetarik

- Ingeleseko ikastaro trinkoak ematen dira. Hasiera, apirilaren 19an. Tfnoa: 79 24 59.
- Etxean egiteko lan serioa eskaintzen da 18 urte baino nagusiagoentzat. Erantzuna eta informazioa jasoteko sobre bat sigilu eta guzti P. I. de Barrutia 1. Ezk. (Aramaio) zuzenbidera.
- Lanak ordenadorez pasatzen dira. 150 PTA orriko. Tfnoa: 79 13 26. Maite.
- Leintz Akademiaren alemanezko, ingelesezko eta italianozko klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 79 81 30 eta 79 51 09.
- Atxabaltan, etxera etorri eta OHOk klase partikularrak emateko pertsona behar da. Tfnoa: 79 74 52.
- Lentilak aurkitu nituen Ferrerias kalean, deitu 77 05 65 tfnora.
- Leioara egunero joaten naiz kotxez. Zuk ere bidaia bera egiten baduzu, elkarrekin joan gaitzake, kotxea baduzu hobeto. Dei egin as-teburu eguerdian 79 50 20. Imanol.
- Larunbatean eguerdiko 1.30 inguruan urrezko pultsera bat galdun nuen Olarte kalean. Aurkitu duenak dei egin dezala 79 49 76 tfnora. Saritu egingo da.
- Aste Santuan Parisera joateko pertsona behar dut. Joan nahi baduzu dei egin 79 89 31 tfnora.

Salerosketak

- Salgai Taurus Tropicano 10-F berogailu-hai-zagailua.
 - Mepamsa 542 DSE butanozko berogailua.
 - PCrako 2MB-ko RAM memoria (SIMM-ak). Prezioa: 9.000 PTA.
 - "Ideal 1.034 A" Din A-4 neurriko gilotina. Guzti hauetarako dei egin 77 08 15 tfnora. Kepa.
- Fagor markako etxeko labe elektrikoa salgai. Oso egoera onean dago eta prezioa ere oso ona da. Gainera (enzimera) su elektrikoa oparion doa labearekin. Tfnoa: 79 82 47. Marielen.
- Yamaha 250 c.c. 88. urtekoa eta Kawasaki 125 c.c. 87. urteko motorrak salgi. Dei egin 71 42 22 tfnoara. Jon.
- Moto Guzzi California Custom salgai. 450.000 PTA. Tfnoa: 79 87 62. Joxe.
- Nintendo kontsola eurokonektorea behar duena salgai 7.500 PTA. Hainbat joku 3.000-5.000 PTA artean. Tfnoa: 71 40 19. Igor.
- Nissan Vanette SS-AG furgoneta salgai. Tfnoa: 51 51 41.
- Mahai borobila, aulkiak, aparadorea eta alfonbra batzuk salgai. Dei egin 8etatik aurrera 79 52 96.
- Pigini markako akordeoia salgai. Botoi sistema. 120 baju. 3+2 erregistro. Tfnoa: 79 99 29 eta 77 05 98.
- Bi urteko Adria markako karabana salgai. 5 plaza, berogailua eta oso prezio interesgarria. Tfnoa: 79 84 55.

Aste Gazte

Auzolandegiak

- Aste Santuan, Berne-don (Araba), 18 -26 urte bi-tartekoei zuzendua. Lan mota: ekologikoa eta berre-raikitzea. Apirilak 8-17. Prezioa: 5.000 PTA. Plaza mugatuak.
- Alemania eta Frantzia ere plaza batzuk badaude; interesatuak pasa zaitezke bulegorik lehen bait lehen.

Ihardunaldiak

- Ingurugiro problema-tikari buruzko ihardunaldiak Arrasaten, martxoak 22-28. Hitzaldiak Monterronen, arratsaldeko 7etan. Sarrera librea.

Yugoslabiako bortxaketak

- Yugoslavia ohian ger-tatzen ari diren emakumeen kontrako bortxaketak gaitzesteko ekintzen artean, salaketa-txartel batzuk ar-

gitaratu dira, norberaren izenean bidaltzekoak. Gazte Bulegoan eskura ditzaitezue.

Lehiaketak

- San Prudentzio XXIV. argazki lehiaketa. Gai librea. 4 argazkitako bildumak. Epea: apirilak 14.

Gazte ekintzak

- Besaidek antolatuta, martxoaren 27an puenting-a Araotzeko zubian. Izena emateko epea: 22, 23 eta 24ean. Prezioa: 200 PTA.

"Zaharrok jadanik nekatuta gaude iritziak eman eta lerdakeriak esateaz"

DULCE MARIA LOINAZ, 92ko CERVANTES SARIA



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

Z E R N A H I A G O ?

Tomasa Zabaleta**Fagorreko Organu
Sozialeko Idazkaria**

- **Noiztik Fagorren lanean?** 1969.an sartu nintzen baina motza egin zait.
- **Kooperatibetako kargu handiko jende asko ezagutu duzu?** Bai, 70 eta 80 hamarkadetan batez ere, formazioan ibili nintzenean.
- **Zein da umilena?** Zaila da hori neurtzea baina, entzuteko gaitasuna eta bakoitzaren akatsak ulertzeko gaitasuna umiltasun bezala kontsidera daiteke eta horrelako asko ezagutu ditut.
- **Eta genio txarrenekoa?** Hori ere ezin da neurtu, eta gainera ez dut pertsonalizatu nahi.
- **Zein izan da entzun duzun kotileorik politena?** Ez zaizkit gustatzen, horien kontrakoa naiz eta molestatu egiten naute.
- **Ileapaindegira joatea gustatzen?** Bai, noizean behin joaten naiz, ilea mozteko beharra dudanean.
- **Zertan pasatuko zenituzke 25 minutu?** Mendi puntara igotzen eta bertatik itsasoa begiratzten.
- **Poesia irakurtzea gustatzen?** Ez dut poesia gehiegi irakurri, formaziozko liburuak gustatzen zaizkit batez ere.
- **Zerk laguntzen dizu bizitzako arazoak alaitzen?** Neure barneko oreka lortzeak, arazoan errelatibotasuna bilatzeak eta Jaunagan dudan sinismenak ere laguntzen dit.
- **Zerekin damutzen zara?** Neurekoia izateaz, eta beharbada solidaritate faltaz ere bai.
- **Igandero joaten zara mezatarra?** Bai, baina ez norma bezala, nire sinismenaren ospakizun bezala baizik.
- **Asteburuetako denbora librean zer egiten duzu?** Donostiara joan, baserria bisitatu eta familia eta lagunekin egon.
- **Krisiari beldurrik?** Bai, nire postutik asko igarri dut bere eragina.

BERTSOAK

ORDENADOREA


1

Bikaina zara zinez hortan ez dut dudik, zure tripa barruak noiz dira husturik? sarri izaten nauzu jarraitu ezinik, ordenaren ordenez desordenaturik.

2

Zuri begira buru eta hatzaparrak, dena borratzen bada ai gure negarrak. zurekin pizten zaizkit kezka indarrak, ez al garen bihurtzen karratu xamarrek.

ION IÑAKI IZARZELAIA



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Twm Prys Jones

Herrian izan diren Galestarren irakasle-burua


Gales eta Euskal Herriaren egoera pare-samarrekoak dira: 3.000.000 biztanle inguru, hizkuntzari dagokionez diglosia nagusi eta, bertakoen aldetik, galestarra berreskuratzeko ahaleginetan dabiltza. Twm Prys Jones irakasle galestarra, ikasle-talde batekin Euskadi eta euskara ezagutzen ari da. Bidaiaren lehen egunean Arrasaten izan ziren.

— Zer dela eta Euskal Herrian zehar?

— Beno, herri elebidun batean bizi gara eta ikasle hauek galestarrez ari dira burutzen euren ikasketak; horien artean, hizkuntzaren pedagogia. Ondorioz, interes handia geneukan hemen zer gertatzen den ikusi eta gure egoerarekin konparatu, elebitasunari begira hezkuntzan zer planteiatzen den jakiteko, hemengo hizkuntzaren bizitasun-maila hango egoerarekin konparatu ahal izateko.

— Eta hango egoera, nolakoa da, bada?

— Lehendabiziko aldiz azken ehun urteotan eta azken erroldaren arabera,



Twm Prys Jones.

galesdunen kopurua ez da gutxitu, bere hartan geratu da, aurreneko ehun urteetan etengabeko jaitsiera ezagutu zen arren. Horrekin batera, Galesen bizi diren ume denek lehendabizikoz jaso behar dituzte gutxienez galesezko klaseak eskola guztietan, hemengo A ereduaren antzeko zerbait.

Dena den, nazio-mailan ezarri den sistema berri horrek baditu bere arazoak: kasu askotan hango eskolak Udalak sortutakoak dira eta eurek kontrolatzen dituzte; sistema berri honek, eskolei udalekiko dituzten loturak askatzeko aukera ematen die, autonomia osoa lortzeko aukera. Zenbait kasutan

Udalek galestarren aldeko jarrera oso garbia hartu dute eta eskola askok autonomia lortzen dutenean, ondorioz, galesaren presentzia gutxitzen ari da. Horrelakotan A eredu soilaren antzerako gauza batetara mugatu dira eskolak.

— Etorri aurretik zer zenekiten Euskal Herriaz?

— Zerbait bai, Europa mailako argitalpenetan Euskal Herriaz ateratzen da nolabaiteko informazioa. Artikulu horiei esker banekien Euskal Herriko eta Galeseko egoera antzerakoak izan zitezkeela.

— Arrasateko euskara-plangintzaz hitzaldi bat entzuteko aukera izan duzue; ondorioz atera duzue?

— Alderdi batzuetan badirudi bertakook indar gehiago duzuela euskararen alde lan egiteko, zenbait arlotan gaia aurreratua dago hemen. Harrituta utzi nau Arrasaten egiten ari den lanak, gauzak aurrera ateratzeko borondatea somatu dut, ez dakit borondate politikoa edo hizkuntzaren aldekoa den, baina gauzak aurrera doazela nabaritzen da. Imagina ezina da Galesko Udal batek ATB eta ARRASATE PRESSEN moduko muntaiei dirulagun-

● **“Gauzak aurrera ateratzeko borondatea somatu dut Arrasaten, ez dakit borondate politikoa edo hizkuntzaren aldekoa den...”**

BIONA

Zurgin Kantoi, 2
Tfnoa: 79 20 04
ARRASATE

.....
**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**
.....

BAZAR
TOKI ON

J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

tza ematea.

Aipatutakoagatik, uste dut hemengook zeun ekintzetan askoz ere pragmatikoagoak zaretela, han batzordeak sortzeko berba asko egiten dugu; hemen, alderantziz, badirudi gauzak egiten direla, badirudi bidea ondo markatuta dagoela eta lana ondo zentratuta.

— Arrasaten egun bat besterik ez duzue pasatu; aurreritirik egiteko astirik bai?

— Bai horixe, oso iritzi positiboa jaso dut. Bazkalorduan gehienok ados egon gara gauza batean: bisitaldiako erresidentzia finkoa Donostian jarri beharrean Arrasaten jarri behar genuela, hemengo esperientzia aberasgarriagoa da eta; alde horretatik hanka sartu dugu uste dut.

— Bazkalordua aipatu duzunez, janarfa?

— Niri asko gustatu zait eta uste dut besteei ere gustatu zaiela, ateratako guztia jan dute behintzat.

— Arrasatera etortzea kasualitatea izan da?

— Bisita antolatzeko Jaurlaritzara idatzi genuen, Jaurlaritzak berak hartu zuen bisitaldiaren antolamenduaren kargua. Beste toki batzuen artean, Arrasatera etortzea komenigarria zela iruditu zitzairen, beste toki batzuekin konparatuz gero hemen dinamika berezia landu baita.

Galestarrak Arrasaten



Batzokian bazkaldu zuten galestarrek eta, itxura batean, konforme baino konformeago geratu ziren ateratako bazkariarekin, platerak behintzat zuri-zuri utzi zituzten.



Kafe-ordurako Goikobalukoak hurbildu ziren Batzokira eta egindako saioaren ondoren, txalo ugari jaso zuten. Ordainean, galestarrek kantu páre bat eskaini zituzten.

KORRIKA

Apirilaren 1ean Arrasaten Korrika

Aurtengo Korrikaren edizioa, egiten den zortzigarrena, apirilaren 1ean goizeko 11ak inguruan pasatuko da Arrasatetik. Korrika-8 Oñatitik etorriko da, eta Arrasateko kaleak zeharkatu ondoren Atxabaltaruntz joango da; handik Eskoriatza, Gatzaga eta Araban sartuko da.

Korrika igarotzerakoan Arrasaten antolatuko diren ekintzak bideratzeko, Korrika-Batzordea osatu da eta jendearen parte hartzea eskatzen ari da: Korrika egunean takarran eginez, materiala erosiz, burutzen diren ekintzetara agertuz, edo eta kilometroak erosiz. Korrikaren zortzigarren edizio honetarako 25.000 PTAtan jarri da kilometroa, eta gehiegi iruditu ere, ez dago arduratu beharrik, edozein laguntza ondo hartuko baita.

“Denok maite dugu gurea herria”, “Denok maite dugu gure herria euskaraz” eta “Denok euskaraz” lemak erabiliko dira Korrikaren zortzigarren edizioan. Hiru pausoko lema horren bidez, euskara ezagutzen ez dutenak hurbiltzera gonbidatu nahi dira; euskaldunak, berriz, euskaraz bizi izatera. Aurreko urteetan bezala, Korrika-8 edizioak euskararen alde lan handia egindako gizon bat omenduko du: Martin Ugalde idazle eta euskaltzalea.

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina


Durana, 12
ARETXABALETAKO



• ESAERA ZAHARRA •

“Etorkizuna,
kontakizuna”

• JEROGLIFIKOA •



Emakumezkoen izena.

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10					11		
12			13	14			15
		16				17	
18	19					20	
21							

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Trabatua. 9. Higuindu. 10. Trenbidean ibiltzen da. 11. Atsekabea adierazteko hasperena. 12. Animatzeko erabiltzen den hitza. 13. Topekada. 16. Euskadiko Zelaiaikoen Elkarte. 17. (Ald.) Silizioa. 18. Inor. 20. Titanioa. 21. Baliogabetua.

Bertikalak 1. Garagartzako baserria. 2. Pisuhil. 3. (Ald.) Euskadiko Karlista Alderdia. 4. Nafarroako udala. 5. Modu atzizkia. 6. Larruazal. 7. Niminotu. 8. Ugatzen bokalak. 14. (Ald.) Barruti. 15. Kontinente horia. 16. Euskal Herriko Unibertsitatea. 19. Superlatibo atzizkia.

• HOROSKOPOA •

Aries Lasai, tripako min horiek baretzeko ez duzu sendagilearengana joan beharrik.

Taurus Lanez beteta zabiltzala? Ez naiz harritzen, aste osoa gora begira egonda...

Gemini Zure ama sorgin hutsa dela! Ez al zara konturatzen zeu berdina zarela?

Cancer Amodiozko abentura bitxi bat bizitzeko aukera izango duzu.

Leo Ez da mesedegarria hain ona izatea. Ahal duten guztietan zutaz aprobetxatuko dira.

Virgo Ez da normala beti hotzak egotea. Seguru sukarra duzula.

Libra Denbora aldaketa hauek ez dizute batere mesederik egiten.


Scorpio Noiz ikasi behar duzu edukatuagoa izaten? Horren baldarra izatea ere...

Sagittarius Zorionak! Azkenean ere, espabilatu zara. Bazen zerbaitetarako ordua.

Capricorn Zorte onaren boladak ez du zuregandik ihesik egingo.

Aquarius Beti eserita egotearen ondorioz, ipurdia laukitu egin behar zaizu.

Piscis Katu beltz bat ikusiko duzu kalean, baina ez dizu suerte txarririk ekarriko.



KÖMMERLING
PVCzko leihogintza


Markulete Industrialdea, 20. pabiloia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE



Salterais

Ezagutu itzazu PVCren
bitartez gaur egun
eskura dauzkazun
leiho miresgarriak, ez
hotsik, ez berorik, ez
soinurik...

• IBAN HERRARTEREN GOMENDIOA •



AEDko Gazte Mobidak antolatu duen Bertso Afari Gaztera gonbidatu nahi gaitu Ibanek. Ostiral honetan izango da Alkartun, "Kriston Juerga botatzeko moduko alternatiba kulturala eguakotxerako". Unai Iturriaga, Igor Elortza eta Iratxe Ibarra bertsolari bizkaitarrak etorriko dira. Aurretik poteoa ere egingo da trikitalariek, eta afaritarako txartela 1.000 PTaren truke. Izenematea, AEDn, Hiren eta Ekaitzen egin daiteke. Iban gustatzen zaizkio bertsoak eta "aldrebes samar bada ere, egiten dut bertsoan". Ostiralean, beraz, entzun bakarrik ez, botatzera ere animatuko dira akaso bateron batzuk.

• PROGRAMAZIOA •



- 21 Igandea**
9.30 Monterock
10.00 Mondragol
- 22 Astelehena**
1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Mondragol
7.30 Dokumentala
8.8.30.9 Berriak
9.30 Mondra Sport
10.00 Asteko Zinea: Ander eta Jul
- 23 Astearte**
1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Mondra Sport
7.30 Dokumentala
8.8.30.9 Berriak
9.30 ATB Pub
10.00 Asteko Zinea: Ander eta Jul
- 24 Asteazkena**
1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 ATB Pub
7.30 Dokumentala
8.8.30.9 Berriak
9.30 Pareak Jokuan.
10.00 Asteko Zinea: Ander eta Jul
- 25 Osteguna**
1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Pareak Jokuan
7.30 Dokumentala
8.8.30.9 Berriak
9.30 ATBketan
10.00 Asteko Zinea: Aneta Jul
- 26 Ostirala**
1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 ATBketan
7.30 Dokumentala
8.8.30.9 Berriak
9.30 Monterock
10.00 Asteko Zinea: Ander eta Jul


• KOMIKIA •



• SOLUZIOAK •

Elena.
JEROLIFIKOA
EHU. 19. En.
Tktitu. 8. Un. 14. Aera. 15. Asia. 16.
AKE. 4. Santzol. 5. Ki. 6. Azal. 7.
Bertikalak 1. Anteena. 2. Tara. 3.
Tr. 21. Anulata.
Tarka. 16. Eze. 17. Is. 18. Nehor. 20.
Nakaitzu. 10. Tren. 11. At. 12. Ea. 13.
Horizontalak 1. Alskatu. 9.
GURUTZGRAMA

IBARRA
Garajea S.L.



EBRO
NISSAN

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62


HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiralez
Setatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



DESKUBRA EZAZU OPEL ASTRAREN BALIO BERRIA



MCCANN

OPEL ASTRA: SEGURTASUNAREN BALIO BERRIA.

• Segurtasun Gerrikoak alturan erregulagarriak, tentsagailu automatikodunak • Alboko Babesdun Egitura • Lapurreten Aurkako Alarma • ABSa • Segurtasuneko Ixte Zentralizatua

OPEL ASTRA: EROSOTASUNAREN BALIO BERRIA.

• Pantaila Funtzioanitzta • Check-Kontrola, Konputagailu eta Irraticasettea • Barrukalde Ergonomikoa • Ganblo Automatikoa • Direkzio Lagundua • Alrearentzat Mikrofiltroa

OPEL ASTRA: INJINARITZA ALEMANAREN BALIO BERRIA.

• Trakzio Kontrol Elektronikoa • Flush-Glass Diseinu Aerodinamikoa • Multipunto Injekzio, 16 Balbula eta Turbodiesel Motore Berriak

DESKUBRA EZAZU ORAIN ZURE OPEL BANATZAILEAN.

OPEL ASTRA, ETORKIZUNEN INJINERUTZA.

*Astra gamaren ekipamendu orokorra, bertsioren arabera.

OPEL

Z A I G A I T U Z U

TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. BERGARA (Guipuzkoa)

Erakusketa ARRASATEn: Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86

DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako
kontzesionaria

Zerbitzu Ofiziala ARETXABALETAn

TALLERES NORTE

Pol. Ind. BASABE. Pabellón A-13. Tel. 79 62 65

OPEL BANATZAILE OFIZIALAK, ESPERIENTZIAZ ONENAK